



KUDEAKETA TXOSTENA 2022-2023

Fakultateko Batzarrean onartua 2024/03/14an.

Jarraian, UPV/EHUko Psikologia Fakultatearen 2022-2023 ikasturteko Kudeaketa Txostena aurkezten da, eta bertan jaso da ikastegiko arlo guztietan egindako jardueri buruzko informazioa.

Donostia, 2024ko ekainaren XX(a)

AURKIBIDE OROKORRA

1. Psikologia Graduaren urteko txostena	
1.1. Tituluaren kalitatea bermatzeko jarduerak	31
1.2. Baliabideak	37
1.3. Emaitzak: tituluaren jarraipenarekin lotutako adierazleen bilakaeraren azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa	31
2. Osasun Psikologia Orokorra Unibertsitate Masterraren urteko txostena	
2.1. Tituluaren kalitatea bermatzeko jarduerak	31
2.2. Baliabideak	31
2.3. Emaitzak	31
3. Psikologia: Banakoa, Taldea, Erakundea eta Kultura Masterraren urteko txostena	
3.1. Tituluaren kalitatea bermatzeko jarduerak	31
3.2. Baliabideak	31
3.3. Emaitzak	31
4. Erakundeen Psikologia eta Esku Hartze Psikosoziala Masterraren urteko txostena	
4.1. Tituluaren kalitatea bermatzeko jarduerak	31
4.2. Baliabideak	31
4.3. Emaitzak	31
5. Hizkuntzaren Neurozientzia Kognitiboa Masterraren urteko txostena	
5.1. Tituluaren kalitatea bermatzeko jarduerak	31
5.2. Baliabideak	31
5.3. Emaitzak	31

I. eranskina: 2022/2023 ikasturteko adierazleen taula

PSIKOLOGIA GRADUKO TITULUA

AURKIBIDEA: PSIKOLOGIA GRADUA TITULUAREN URTEKO TXOSTENA

1.1. TITULUAREN KALITATEA BERMATZEKO JARDUERAK

1.1.1. GRADUKO IKASLEAK ORIENTATZEKO ETA HAI EI PSIKOLOGIA FAKULTATEAN SARTZEN LAGUNTZEKO JARDUERAK

- 1.1.1.1. Ikasle berrien harrera**
- 1.1.1.2. Berdinen arteko tutoretza**
- 1.1.1.3. Hautazko irakasgai ei buruzko informazioa**
- 1.1.1.4. Mugikortasun programei buruzko informazioa**
- 1.1.1.5. Eleaniztasunari buruzko informazioa**
- 1.1.1.6. Practicumari eta kanpoko praktikei buruzko informazioa**
- 1.1.1.7. GRALei buruzko informazioa**

1.1.2. IRAKASGAI AK KOORDINATZEKO JARDUERAK

1.1.3. TITULUA HOBETZEKO JARDUERAK ETA EKINTZAK

- 1.1.3.1. Ikasketa planaren aldaketak**
- 1.1.3.2. Irakaskuntza planifikazioa**
- 1.1.3.3. Laugarren mailako kanpoko praktiken jarraipena eta hobekuntza**
- 1.1.3.4. Laugarren mailako GRALaren jarraipena eta hobekuntza**
- 1.1.3.5. Ikasleak laneratzeko jarduerak**
- 1.1.3.6. Psikologiako Graduaren publizitatea egiteko jarduerak**
- 1.1.3.7. Eskertzak, iradokizunak, ke xak eta erreklamazioak**
- 1.1.3.8. Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema**

1.2. BALIABIDEAK

1.2.1. BALIABIDE MATERIALEN ETA ZERBITZUEN DESKRIBAPENA

1.2.2. ERABILGARRI DAUDEN GIZA BALIABIDEEN DESKRIBAPENA

1.2.3. MOTIBAZIOA ETA GARAPENA

1.3. EMAITZAK: TITULUAREN JARRAIPENAREKIN LOTUTAKO ADIERAZLEEN BILAKAERAREN AZTERKETA KUANTITATIBOA ETA KUALITATIBOA

1.3.1. PLAZEN ESKAINTZA ETA ESKARIA, ETA SARRERAKO PROFILA

- 1.3.1.1. Ikasketen eskaria**
- 1.3.1.2. Onartutako ikasleen kopurua eta profila**

1.3.2. IRAKASKUNTZAREN EMAITZAK, EGRESATUEN PROFILA ETA LANERATZEA

- 1.3.2.1. Errendimendu akademikoaren tasak**
- 1.3.2.2. Mugikortasuna**
- 1.3.2.3. Eleaniztasuna**
- 1.3.2.4. Egresatuen profila**
- 1.3.2.5. Laneratzea**

1.3.3. GOGO BETETZEA

- 1.3.3.1. Ikasleen gogobetetzea**
- 1.3.3.2. IRlen eta TEKAZELen gogobetetzea**

1. PSIKOLOGIA GRADUA TITULUAREN URTEKO TXOSTENA

1.1. TITULUAREN KALITATEA BERMATZEKO JARDUERAK

Jarraian, 2022-23 ikasturtean tituluaren kalitatea hobetzeko egindako ekintzak aurkeztuko ditugu: Psikologiako Gradua.

Hiru ataletan sailkatu dira egindako jarduerak: ikasleak orientatzeko jarduerak, gaiak koordinatzeko jarduerak eta irakaskuntza hobetzeko jarduerak.

1.1.1. GRADUKO IKASLEAK ORIENTATZEKO ETA HAI EI PSIKOLOGIA FAKULTATEAN SARTZEN LAGUNTZEKO JARDUERAK

1.1.1.1. Ikasle berrien harrera

Ikasle berrien harrera ekitaldia Areto Nagusian egin zen, 2022ko irailaren 12an. Bertan parte hartu zuten dekanook eta dekanotza taldeko beste kide batzuek, baita Ikasleen Kontseiluko bi ordezkari ere.

Harrera Gida banatu zen, eta haren edukiak azaldu ziren, hots:

- Fakultatearen antolakuntza (ikasketa, irakaskuntza eta administrazio egitura)
- Ikasketa plana
- Zerbitzuak
- Arautegiak
- Ordutegiak

1.1.1.2. Berdinen arteko tutoretza

Aurreko ikasturtea amaitzean, lehenengo mailako ikasleen tutore izateko ikasle boluntarioei informazioa emateko eta

erakartzeko prozesua hasi zen. 2022-23 ikasturtean, zortzi ikaslek parte hartu zuten lehenengo mailako ikasleen tutore izateko.

1.1.1.3. Hautazko irakasgaiei buruzko informazioa

Urtero, bigarren eta hirugarren mailako ikasleei informazio hitzaldi bat ematen zaie hirugarren eta laugarren mailetan aukeratu beharko dituzten irakasgaien eskaintza azaltzeko.

Hitzaldia 2023ko maiatzaren 30ean egin zen, Psikologiako Gradu 2. eta 3. mailako ikasleekin. Bilera Akademia Antolakuntza, Ikasle eta Gradu dekanordeak deitu zuen, eta Areto Nagusian egin zen. Saioan, hautazko irakasgaiei buruzko informazioa eman zen: ezaugarriak, baldintzak, epeak, etab. Ikasleek beren lehentasun eta interes pertsonalen arabera aukeratzea da helburua.

1.1.1.4. Mugikortasun programei buruzko informazioa

Aurreko edizioetan egindakoaren antzera, mugikortasun programak ezagutzera emateko eta horietarako eskaerak bidaltzea sustatzeko informazio hitzaldi bat eman zitzaien ikasleei, UPV/EHUko Nazioarteko Harremanen arloko zuzendariak campus bakoitzean ematen duenaren osagarri. Gainera, programetako (Erasmus+, AL & OD eta SICUE) esleipenak egin ondoren, informazio hitzaldiak ematen zaizkie hautatutakoei hurrengo pausoetan gidatzeko.

Bestalde, jendaurreko arretarako ordutegi bat jarri zen Mugikortasuneko Dekanordetzaren bulegoan, ikasleek izan zitzaketen zalantzak argitzeko edo arreta pertsonalizatua emateko hala behar zutenei.

1.1.1.5. Eleaniztasunari buruzko informazioa

Hizkuntzei dagokienez, Mugikortasuneko Dekanordetzaren bitartez, eleaniztasun unitateak gure ikasle, IRI eta TEKAZEL guztiei birbidaltzen dizkie hizkuntzen laborategiak ikastaro eta mailen ziurtagiri ofizialen probei buruz dituen eskaintzak. Era berean, ikastegiko ingelesezko irakaskuntza eskaintza kudeatzen da

UPV/EHUko Eleaniztasun Planaren deialdiaren arabera, bai eta English Friendly Courses (EFC) irakasgaien eskaintza ere. Eleaniztasunaren informazioa eta kudeaketa Mugikortasuneko Dekanordetzaren bitartez egiten da.

1.1.1.6. Practicumari eta kanpoko praktikei buruzko informazioa

2023ko martxoaren 21ean eta 22an, Praktiken eta Enplegarritasunaren arloko dekanordeak informazio saio baterako deia egin ziren hirugarren mailako ikasleei (bilera bat gaztelaniazko taldearentzat eta beste bat euskarakoarentzat). Bilera hartan izan ziren, halaber, Practicumaren Batzorde berriko zenbait kide. Hainbat gai landu ziren: Ikastegiak kanpoko praktikak egiteko eskaintzen dituen arloak eta praktiketako plazak eskatzeko eta adjudikatzeko prozedura. Gainera, borondatezko kanpoko praktikei eta horiek eskatzeko prozedurari buruzko informazioa ere eman zen.

Aurrez aurreko informazio bilera horrez gainera, hirugarren zein laugarren mailako ikasleek mezu elektronikoen bidez ere jaso zuten informazioa: hirugarren mailakoek, adjudikazio prozedurari buruz, eta laugarren mailakoek, berriz, praktiketan hasi aurretik egin beharrekoari buruz.

Fakultatearen webguneak ere graduako praktiken gaineko informazio eguneratua ematen die ikasleei, begiraleei eta barneko tutore/irakasleei. Horrekin batera, ikasleek egin ditzaketen praktiken eskaintzari buruzko katalogo bat ematen zaie. Katalogo horrek ikastegiak betetzen dituzten fitxa batzuk ditu, askotariko informazioa jasotzen dutenak: ikastegian antolatzen diren jarduerak, ordutegiak, eskakizunak... Horri esker, ikasleek ahalik eta espektatiba errealenekin aukeratzen dute ikastegia.

1.1.1.7. GRALei buruzko informazioa

Aldaketarik gabe mantendu zen GRALaren egutegi edo zikloa, bi informazio saio jasotzen dituena: bat ikasturte hasieran, 4. mailako ikasleentzat, eta beste bat bigarren lauhilekoan, 3. mailako ikasleentzat.

[Fakultatearen](#) webgunean, "Gradu Amaierako Lana" eta

“Ikaslearen Gidak” ataletan, GRALaren laburpen mapa bat erantsi zen, eta bertan jasota daude harekin lotutako alderdi guztiak eta ikasleek kontuan hartu behar dituzten betebeharrak eta prozedurak ere.

4. mailako ikasleei 2022ko irailaren 26ko informazio bilerara dei egin zitzaien. Bilera hartan, GRALari eta aurretiko izen ematea egiteko prozedurari buruzko informazioa eman zitzaien, eta webgunean zer informazio dagoen erakutsi eta azaldu. Bilera horretan bertan, GAUREn bidez komunikazioak edo informazio mezuak prozesuaren zer unetan jasoko zituzten jakinarazi zitzaien ikasleei.

Hirugarren mailako ikasleei 2023ko maiatzaren 17an biltzeko deia egin zitzaien. Bilera hartan, GRALa aurkeztu eta azaldu zitzaien, eta webgunean dagoen informazioari buruzko argibideak eman zitzaizkien.

2022ko irailaren 15ean amaitu zen GRALaren webgunearen eguneratzea, 2022-23 ikasturteko gaien eskaintza jaso baitzen. Hori horrela, mezu elektronikoa bat bidali zitzaien ikasleei eguneratze horren eta hura eskatzeko epeen berri emateko.

Aldaketak eskatzeko epea behin igarota, eta zuzendariak eta gaiak behin betiko esleitu ondoren, informazioa banatu zitzaien ikasleei eta irakasleei, GAUREn bidez. Modu berean eta prozedura berbera baliatuta jakinarazi ziren defentsak egiteko esleitutako datak: 2022ko urriaren 13tik 18ra, 2023ko ekainaren 20tik 22ra, eta 2023ko urriaren 16tik 19ra.

Azkenik, azpimarratu behar da 22-23 ikasturtean 93 lan aurkeztu eta defendatu zirela euskaraz, hau da gure Fakultatean defendatutako GRAL guztien % 40,44. Halaber, 3 GRAL defendatu ziren ingelesez, hots, gure Fakultatean defendatutako GRAL guztien % 1,30. Horrez gainera, aipatu behar da 22-23 ikasturtean Fakultateko irakasleek 64 plaza eskaini zituztela GRALa ingelesez egiteko.

1.1.2. IRAKASGAIK KOORDINATZEKO JARDUERAK

22-23 ikasturtearen hasieran, koordinazio bilera orokor bat egin zen. Deialdia lehenengo hiru mailetako eta ibilbideetako koordinatzaileei egin zitzaien, koordinazio prozesuari hasiera emateko.

Mailako eta ibilbideko koordinatzaileen zeregina da lotura izatea ikasle eta irakasleen artean, graduko koordinatzaileari informazioa emateko. Hartara, azken horrek azken instantzian, dekanotza edo dekanordetza egokienari helarazten dizkio zailtasunak. Ikus 1. irudia.


1. irudia. Ikasle/irakasleen eta dekanotzaren arteko komunikazio katea.

Estudiantado-> Profesorado -> Coordinador de asignatura -> Coordinador de curso->Coordinado de grado -> Decanato



Era horretara, kexak edo eskaerak ez dizkiote irakasleek edo ikasleek helarazten aldizka dekanotzari. Hori dela eta, bileren egutegi bat ezartzen da ikasleek eta irakasleek beren kexak helaraz ditzaten. Horretarako, mailako koordinatzaileekin bileren kronograma bat ezarri zen (2. irudian ikus daiteke). Ikasturteko koordinatzaileek bilerak egiten dituzte lauhilekoaren hasieran eta amaieran ikasleen ordezkariekin eta irakasgaien koordinatzaileekin. Bilera horien helburua bikoitza da: irakasgai bakoitzaren zeregina aztertzea zeharkako kompetentziekin eta jardueren banaketarekin lotuta, eta bizikidetzara adierazleak biltzea, irakasleen iritzia bide egokietatik bideratuz (ikus 1. irudia).

2. irudia. Bileren kronograma.



Aldi berean, mailako koordinatzaileek bilera bana ezartzen dituzte lauhilekoaren hasieran eta amaieran graduko koordinatzailearekin; azken hori arduratzen da horietan jasotako puntuak laburbildu eta helarazteaz. Ibilbideetako koordinatzaileekin lehen lauhilekoaren hasieran eta amaieran egin ziren bilerak, soilik aldi horretan ematen baitira.

2022-2023 ikasturtea da egungo ikasketa plana iraungi aurreko azken urtea; hortaz, ez ziren erronka berririk edo berritasunik proposatu ikasturterako.

Oro har, ez zen zailtasun handirik antzeman koordinazioan. Antzeman zen, ordea, onartutako kronograma aldatu zuten irakasgaien kasuren bat, irakasgaiaren plangintzan jaso gabeko partzialak egin zituzten taldeak edo bigarren partzial bat egiteko ahaleginak. Kasu horietan, koordinatzaileek irakasleei gogorarazi zieten ezin direla aldaketak planteatu kronogrametan

koordinatzaileari horien bideragarritasuna kontsultatu gabe. Beste kexetako bat praktika taldeen egituraren ondoriozkoa izan zen, eta gogorarazi behar da egitura hori Leioan ezarri zela, aurreko ikasturteko matrikuletan oinarrituta. Hori dela eta, bat ez etortzeak izaten dira urtero, nahiz eta akademia antolakuntzako dekanordeak horiek arintzeko asmoa izan.

Oro har, zailtasunik gabe ebatzi zituzten kexa zehatzak mailako koordinatzaileek eta graduako koordinatzaileak. Azken batean, koordinatzailearen figura funtsezko figuratzat baloratzen da ikasgelan gatazka txikiak azkar konpontzeko, gehienetan oinarritzko hezkuntza eta portaera arauak onartzeko zailtasunarekin lotuta daudenak (telefono mugikorrek erabiltzea, errespetu faltak, eskoletan hitz egitea, etab.). Horregatik, eta lehenengo mailako koordinatzailearen ekimenez, "Jokabide, errespetu eta erantzukizun arauen dekalogo". egitea proposatu zen.

1.1.3. TITULUA HOBETZEKO JARDUERAK ETA EKINTZAK

1.1.3.1. **Ikasketa planaren aldaketak**

2022-2023 ikasturtean, Psikologiako Graduan sartzeko irizpideak aldatu dira, unibertsitatera sartzeko proben haztaperen parametroak egokitzeko. Apirilaren 5eko 243/2022 Errege Dekretuari, Batxilergoko gutxieneko irakaskuntzak eta antolamendua ezartzen dituenari, jarraituz egin da hori.

Hautazko irakasgaien aldaketari, sorkuntzari eta iraungitzeari buruzko ekintzari dagokionez:

4,5 kredituko irakasgaiak ezabatu dira:

2505: Giza Baliabideen Psikologia: Plangintza, Hautapena eta Sustapena.

25083: Lanpostuen Ebaluazioa, Errendimendua eta Hobekuntza.

25082: Taldeko Esku-hartze Psikosozialerako Sarrera.

25056: Publizitatearen eta Marketinaren Psikologia.

Eta bi hautazko kreditu berri sortuko dira, bakoitza 6 kreditukoa (22-23 ikasturtean ematen hasiko dira):

1. Giza Baliabideen Psikologia: Pertsonen Kudeaketa Erakundeetan.

2. Publizitatearen, Kontsumoaren eta Osasunaren Psikologia.

Gainera, irakasgai honen irakaskuntza bektorea aldatu da: **Datuen Analisia eta Diseinuak: Metodo esperimentalak**. Laborategiko

praktikak izan beharrean, ordenagailuko praktikak izango dira. (EGUNGO BEKTOREA: CM 32-TA 4-PA 11-PO 9-PL 2-S 2 ALDATUTAKO BEKTOREA: CM 32-TA 4-PA 11-PO 11-S 2).

Halaber, bi hautazko irakasgai ezabatu dira:

- 25085 Esku-hartze Psikosozialeko Programen Ebaluazioari Aplikatutako Diseinuak (4,5 kreditu).
- 25059 Ekipoen eta erakundeen hobekuntzarako teknikak eta tresnak (6 kreditu).

Eta bi irakasgai berri sortzea proposatzen da, Psikologiako Graduaren hautazko prestakuntza eskaintza eguneratzeko, portaera zientzien metodologiaren arloari dagokionez, eta arloko azken aurrerapenak eta egungo ikasketa planean jasota ez dauden gai berritzaileak barne hartzeko:

- **Gradu Amaierako Lanaren prestakuntzari aplikatutako metodologia** (6 kreditu), euskaraz eta gaztelaniaz emateko. Izenean **gradu amaierako lanaren prestakuntza** aipatzen bada ere, oro har txosten zientifikoak egiteko ere erabilgarria izango da.

Honako gai hauek sartuko dira, besteak beste:

1. GRALa: Modalitateak eta egitura
2. Alderdi etikoak GRALean
3. Berrikuspen teorikoa, berrikuspen sistematikoa eta meta-analisisa
4. Psikologiako ikerketen diseinuak eta datuen analisisa: Ikuspegi orokorra.
5. Hainbat eremutan esku hartzeko programen ebaluazioa.
6. Neurketa Psikologian.
7. GRALaren planifikazioa eta burutzea.
8. Psikologian garatzen ari diren estrategia metodologiko aurreratuak.

- **Ikerketa Kualitatiborako eta Teknologia Digitalerako Tresnak** (6 kreditu), euskaraz eta gaztelaniaz emateko. Azken urteetan, benetako iraultza izaten ari da datuen analisisan; hortaz, uste dugu garrantzitsua dela teknika berriak ikasleei aurkeztea. Gai hauek sartuko dira:

1. Ikerketa kualitatiborako sarrera
2. Ikerketa kualitatiboaren oinarriak
3. Datu kualitatiboak biltzeko teknikak
4. Datu eta testuen analisi kualitatiboa
5. Teknologia digitalak
6. Bistaratzeko eraginkorreko tresnak

Masterrei dagokienez, titulu propio edo master ofizial berriak eskaintzeko beharra aztertu ondoren, ondorioztatu da graduondoko titulu berriak eskaini ordez, hobe dela bi master ofizial aldatzea. Zehazki, hauek: "Erakundeen Psikologia eta Esku Hartze Psikosoziala" eta "Psikologiako Unibertsitate Masterra: Gizabanakoa, Taldea, Erakundea eta Kultura".

1.1.3.2. Irakaskuntza planifikazioa

Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzak taldeen egiturari buruz bidalitako proposamena aztertuz hasten da irakaskuntza plangintzaren prozesua, eta kontuan hartzen dira sailen ahalmena eta ordutegiak prestatzearen konplexutasuna.

Aldi berean, IRlei familia arrazoiengatiko edo karguengatiko kontziliazio premiak adierazteko eskatu zaie, ahal den neurrian beharrian partikularrei erantzuteko.

Ordutegiak egiteko, ordutegi proposamen bat egin zen, familia eta lana bateratzeko eskaerak kontuan hartuta, eta ondoren sail bakoitzaren beharren arabera egokitu ziren. Era berean, Ikasleen Kontseiluarekin ere bilerak egin ziren, haien iradokizunak jasotzeko. Iradokizun horien artean, hauek izan ziren garrantzitsuenak: hautazkoen arteko bateragarritasuna maximizatzea, hurrengo ikasturteko ordutegia lehenago argitaratzea, eta behin argitaratuta ordutegia ez aldatzeko edo salbuespen kasuetan bakarrik aldatzeko konpromisoa hartzea.

1.1.3.3. Laugarren mailako kanpoko praktiken jarraipena eta hobekuntza

2022-23 ikasturtean, praktiketako 157 zentrok parte hartu dute gure ikasleen curriculum prestakuntzan. Hain zuzen, 217 ikasle matrikulatu dira, eta horien artetik 10ek garapenerako lankidetzako programaren barruan egin dituzte praktikak, Lankidetzako Bulegoak emandako beka bati esker.

Ikasturte honetan, honako ekintza/aldaketa hauek egin dira, besteak beste:

- 2022-23 ikasturtean, Practicum Batzordearen egiturari eta zereginen banaketari eutsi zitzaion; hain zuzen, honako figura hauek osatzen dute: Praktiketako eta Enplegagarritasuneko dekanordea, Praktiken koordinazioa, Lankidetzako Praktiken arduraduna, Psikosozialeko Praktiken arduraduna, Laneko Praktiken eta Erakundearen arduraduna, Borondatezko Praktiken arduraduna.
- 2022-23 ikasturtean zenbait aldaketa egin ziren Practicum Batzordearen osieran: 2022ko irailean, Igone Etxeberriak borondatezko praktiken arduraduna izateari utzi zion, eta haren ordean, Garazi Labayru hasi zen lanean. 2023ko maiatzean, Ainara Andiarenak, Praktiketako eta Enplegagarritasuneko dekanordeak, kargua utzi zuen, eta kargu hori Garazi Labayruk hartu zuen. Ondorioz, Borondatezko Praktiken arduradunaren kargua utzi zuen, eta kargu horretan, Monika Salgueiro hasi zen.
- 2022-23 ikasturtean, barneko tutoreak posta elektronikoz koordinatu dira (praktiken koordinatzailearen ardura). Tutoreak esleitzeko erabili diren irizpideei esker, tutore gehienak ikasleen tutore izan dira aurreko ikasturtean eta badakite zer egin behar duten. Horrek aukera ematen du koordinazioa hobetzeko eta praktiken zentroekiko komunikazioa errazteko. Ahal den neurrian, aurreko tutoreak esleitzen zaizkie zentroi.
- 2022-23 ikasturtean, borondatezko praktikak egin zituzten ikasleen kopurua murriztu egin zen aurreko urtearen aldean; zehazki, 78 ikaslek egin zituzten, nahiz eta Graduako matrikulen kopuruarekin lotuta, praktika horien antzeko tasari eutsi zitzaion. Aurreko ikasturteetako moduan, hirugarren maila amaituta udan mundu profesionalarekin lehenengo harremana izan nahi zuten ikasleak izan ziren, baita 4. mailako ikasleak ere, nahitaezko praktiketara ezinbesteko 200 orduak baino gehiago egingo zituztenak.
- Irakasle, erakunde laguntzaile eta ikasleentzako informazio nagusia etengabe eguneratu da Psikologia Fakultatearen graduako kanpoko praktiken webgunean.

2022-23 ikasturtean, martxoaren 16ko 2/2023 LED onartu zen, eta ondoren, haren aldaketa, ekainaren 28ko 5/2023 LEDa. Araudi hori 2024ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta ezartzen du egun horretatik aurrera praktiketako ikasleek Gizarte Segurantzaren kotizatutako dutela beren prestakuntza praktikengatik. Ildo horretatik, eta UPV/EHUko Praktika Zerbitzuaren jarraibideei jarraituz, neurri horretara egokitzearen lehen pausoak eman ziren, eta praktika zentroi informazioa eman eta zegoen dokumentazioa egokitu zen (hitzarmenak eta eranskinak).

1.1.3.4. Laugarren mailako GRALaren jarraipena eta hobekuntza

GRALren egutegi edo zikloaren barruan, 2023ko otsailean, sailtako epaimahaiak eratzeko irakasleak eskatu ziren; 2022ko maiatzean, berriz, GRALeko irakasle zuzendariak eta gaien eskaintza.

Aldaketa hauek aplikatu ziren GRALaren arautegian (2021eko abenduaren 16ko Fakultateko Batzarrean onartu ziren):

- ✓ GRALeko hiru plaza IRI bakoitzarentzat.
- ✓ GRALeko plazak eskaintzeko aukera Psikologiako Graduan irakaskuntza duten sailtara atxikitako ez doktoreei, Psikologiako Graduan irakaskuntzarik eduki ez arren.
- ✓ % 60 lanari (% 30 tutorea eta % 30 epaimahaia) eta % 40 aurkezpenari esleitzea.
- ✓ Posterraren proiektzioa defentsan ebaluatzeko.
- ✓ Ebaluazio txostena aldatzea, "Bai" aukera gehitu baitzen baieztapen honi buruz klik egiteko: GRAL honek GRALaren gidaren 5. atalean jasotako formatu baldintzak betetzen ditu (orrialde kopurua, APA arauak, etab.).

1.1.3.5. Ikasleak laneratzeko jarduerak

Enplegu Foroa 2023: 2023ko apirilaren 27an egin zen, eta gure aldetik hiru zentro gonbidatu ziren (praktiken zentro handietan), aurreko urteetan baino bat gehiago.

UPV/EHUko Gazte Ekintzailtza Programaren xedea da ikasleei sortutako enpresa ideia edo ekimenak babestea. Era horretara, ekintzailtzaren kultura aktibatu nahi da, unibertsitatearen eremuan sor litezkeen enpresa ekimenak laguntzearen. Gazte ekintzailtzako beka horiek Eusko Jaurlaritzaren beka dira eta Unibertsitateak eskaintzen ditu ekintzailtza ideia bat garatu nahi duten ikasleentzat. 22-23 ikasturtean, eska zitezkeen 25 bekatatik, gure hiru ikaslek gure praktika zentroetako batekin (Lotura Giza Garapena) lankidetzan lortu zuten beka, eta etxerik gabeko pertsonentzako kontsigna proiektu bat garatu zuten, pertsona horiek leku bat izan zezaten beren gauzak uzteko eta gizartean parte hartzeko etxerik gabeko pertsonen irudi hori gabe (adibidez, lan elkarrizketa batera joateko..).

2022-23 ikasturtean, ikasleei Hezkuntza Esparrutik Lan Mundura Igarotzeko Beken programan parte hartzeko aukera eman zitzaien berriro ikasleei. Ekimen hori UPV/EHUren eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren artean lortutako akordio bati esker sortu zen. Programa horren bitartez, 15 ikaslek parte hartu zuten, eta diruz lagundutako praktiken egonaldi bat egin zuten 2023ko urritik abendura bitartean 15 erakundetean.

Aurten ere, Gradu Amaierako Lanak eta/edo Master Amaierako Lanak garatzeko beken IKD GAZtE Programaren deialdia zabaldu zen, kanpoko erakundeekin lankidetzan eta IKD hezkuntza ereduan oinarrituta (2023ko edizioa), ikasleei programan parte hartzea erraztuz.

Lan eskaintzen hedapena: praktiketako zentroetatik iristen zaizkigun eskaintzak dira, eta, irizten diogunaren arabera, egungo ikasleen eta/edo ikasle ohien artean zabaltzen ditugu.

1.1.3.6. Psikologiako Graduaren publizitatea egiteko jarduerak

Fakultatearen Barne Komunikazioko Plana berraztertu da. Fakultatea hedabideetan agertu da aurten ere, dekanotza taldeko komunikazio arduradunaren figurarekin jarraitu baita. Arduradun horrek solaskide gisa jardun zuen Unibertsitateko Komunikazio Bulegoarekin eta, oro har, psikologiari lotutako gaietako adituak behar zituzten hedabideekin. Komunikazio Planean gauzatutako jarduera guztien artean, nabarmentzekoa da webgunea etengabe aztertu eta eguneratu dela.

Azkenik, dekanotza taldeko kide batzuek eta Ikastegiko beste irakasle batzuek Psikologia Fakultatearen ordezkari gisa parte hartu zuten Unibertsitate Orientaziorako Azoketan (urtarrilaren 28an Donostian, otsailaren 4an Gasteizen eta otsailaren 11n Bilbon), baita Campuseko atea zabaltzeko egunetan ere (martxoaren 20an Batxilergoko ikasleentzat).

Halaber, Ikasleen arloko dekanordeak pertsonalki erantzun die Batxilergoko ikastetxeek eta ikasle potentzialen zentroek ikasketen

eskaintzari, sartzeko baldintzei, eta abarri buruz egindako kontsultei.

1.1.3.7. Eskertzak, iradokizunak, kexak eta erreklamazioak

2022/23 ikasturtean guztira 8 eskaerari erantzun zitzairen. Horietako hiru erreklamazioak izan ziren, bat kexa, beste bat kexa/erreklamazioa, bat iradokizuna eta bi eskaera. Gehienak, bost, kolektiboak ziren, eta hiru banakakoak. Gehienak telematikoki egin ziren (bi izan ezik, paperean aurkeztu baitziren), eta guztiak ikasleenak ziren. Eskaera egin zen egunetik erantzuna eman zen egunera igarotako denbora, bi kasuetan izan ezik, 15 egun baino gutxiagokoa izan zen.

1.1.3.8. Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema

KBBSko prozedura guztiak berraztertu dira. Organigrama eguneratu da, dekanordetza berriak eguneratu baitira. AZP siglaren ordean, TEKAZEL jarri da, eta prozesuen mapan aldaketak egin dira, horietako batzuk kendu baitira (hala nola 2.4.9 Diplomak ematea, 4.2.3 Ebaluazio berezia, 4.2.4 Homologazioa, 4.2.5 Hauteskundeak, 4.2.6 IRLen inkesten gestioa), 4.2.7 Beken, ziurtagirien eta tituluen gestioa partzialki aldatu da, eta 4.2.3 Ziurtagirien eta tituluen gestioa bihurtu da.

Analisi, Berrikuspen eta Hobekuntza Prozesua hasteko, Kalitate Batzordeak honako txosten hauek aztertu zituen:

1. Koordinazio txostena
2. Mugikortasun txostena
3. Ikasleek irakasle-ikertzaileei buruz egindako ebaluazioa
4. Kanpoko praktiken txostena
5. Lanbideren txostena
6. OPOMeko laneratze txostena
7. Ikasketen hasierako eta amaierako profilaren txostena
8. Docentiaz txostena
9. Ikasleen gogobetetzearen txostena
10. Irakasle-ikertzaileen eta AZPkoen gogobetetzearen txostena
11. Iradokizun, kexa eta erreklamazioen txostena

Txosten horiekin guztiekin batera, tituluen emaitzak ere aztertu ziren. Behin aztertuta, Kalitate Batzordeak indarguneak, hobekuntza

arloak eta eratorritako ekintzak ezarri zituen. Gai horiek guztiak jarraipen eta kudeaketa txostenetan jasoko dira.

1.2. BALIABIDEAK

1.2.1. BALIABIDE MATERIALEN ETA ZERBITZUEN DESKRIBAPENA

Psikologia Fakultateak prestakuntza jarduerak ongi egitea bermatzen duten baliabide materialak ditu:

PSIKOLOGIA FAKULTATEA

BALIABIDEAK

26 ikasgela eta irakaskuntzarako 5 informatika laborategi, beharrezkoa den ekipamenduz hornituak (ordenagailuak, proiektoreak, mikrofonoak, megafonoak eta Interneterako konexioa). Horietako 11 prestakuntza bimodalerako egokituta daude.

2 ordenagailu gela, ikasleek nahieran erabiltzeko; bat Graduoko ikasleentzat (propioak nahiz mugikortasunekoak) eta bestea Graduondoko ikasleentzat.

Praktiketarako laborategi bat
Testuteka bat

Erabilera anitzeko gela bat
Areto Nagusia eta Gradu Aretoa (261 eta 50 pertsonarentzako edukiera, hurrenez hurren)

Batzar aretoa

Dekanotzako bilera gela

Ikasleen Kontseiluarentzako bulego bat

Hari gabeko WIFI sarbide zerbitzua

Sailtako mintegiak, irakasleen bulegoak eta antzeko beste espazio batzuk

Idazkaritza

Atezaintza

Kopiagintza

Kafetegia, jantokia, mikrouhinen zerbitzuak eta beste batzuk

1.2.2. ERABILGARRI DAUDEN GIZA BALIABIDEEN DESKRIBAPENA

Gaur egun, ikastegiak 141 IRI ditu kontratuarekin eta TEKAZELeko 18 pertsona (17+1 SGIKER kontratu).

TEKAZELen etengabeko prestakuntzari dagokionez, 2022-23 ikasturtean, 15 pertsonak (horietako 3 gizonak eta gainerakoak emakumeak) 22 ikastaro egin zituzten. Ikastaro horietako hamabi online izan ziren, eta gainerakoak aurrez aurrekoak. Azken horietako bederatzi Donostian egin ziren, eta bat Galdakaon (Bizkaia).

Etengabeko prestakuntzari dagokionez, 2022-23 ikasturtean FOPU-UIPREko 41 ikastaro egin zituzten Psikologia Fakultateko IRIek, eta kopuru horrek gora egin du azken urteetan. Hori bai, online modalitateko prestakuntzak nagusitzen dira, aurrez aurrekoen aldean; azken horiek kasu batzuetan Gipuzkoako Campusean izan dira, eta beste batzuetan, langileak Leioako Bizkaiko Campusera joan dira.

2022-23 ikasturtean, urtarrileko deialdian 21 pertsonak parte hartu zuten, 26 ikastaro egin zituzten, eta ekaineko deialdian, 14 lagunek 15 ikastaro egin zituzten guztira.

FOPU_UIPRE ikastaroak				
Psikologiako IRIak partaide izan dituztenak				
Deialdiak	2021	2022	2023	2024
Urtarrila	5	9	26	18
Ekaina	11	21	15	-
Guztira, urtean	16	30	41	-

Iturria: SAE/HLZ, 2024ko maiatza.

Fakultateko IRIen plantilla teorikoa definitzen joan da sailen zuzendaritzekin ikasketa planaren batzordearen esparruan. Nolanahi ere, USLOren ezarpena dela eta, alderdi hori berriro zehaztu beharko da.

1.2.3. MOTIBAZIOA ETA GARAPENA

Fakultateak langile hasiberriei harrera egiteko prozesu bat du, eta kontratua sinatzen den unean ezartzen da. Horri esker, langile berriek ikastegiaren funtzionamenduari buruzko oinarrizko informazioa eskura dezakete, eta eman behar duten irakaskuntzaz arduratzen den sailera bideratzen dira.

Fakultatean dagoen ezagutza ondo kudeatzeko, ezagutza hori agerian jartzeko eta ezagutza horri balioa emateko asmoz, zenbait neurri hartu dira; besteak beste, ikerketari buruzko informazioa eguneratu da, eta ezagutzaren transferentziarekin lotutako datuak bildu dira. Hiru hilean behin argitaratzen da Psikologia Fakultatearen buletina (2024ko maiatzean argitaratu zen 022 zenbakia), eta unibertsitateko kide guztien artean zabaltzen da. Buletinean, gaurkotasuneko albisteak jasotzen dira: plaza berriak, promozioak eta lanean hasteko aukerak; sariak eta aitopenak; defendatutako tesiak; eta beste albiste batzuen artean, gure Fakultateko langileek komunikabideetan izandako parte hartzea.

1.3. EMAITZAK: TITULUAREN JARRAIPENAREKIN LOTUTAKO ADIERAZLEEN BILAKAERAREN AZTERKETA KUANTITATIBOA ETA KUALITATIBOA

1.3.1. PLAZEN ESKAINTZA ETA ESKARIA, ETA SARRERAKO PROFILA

1.3.1.1. Ikasketen eskaria

Eskura ditugun datuek adierazten dute 22-23 ikasturtean ere Psikologiako titulua egiteko eskari handia izan dela. Aurten, 849 ikaslek eskatu zuten Psikologiako ikasketak egitea, lehen aukera gisa. Halaber, ikasle ugariak eskatu zituzten Psikologiako ikasketak bigarren edo ondorengoko aukera gisa (1.678).

1.3.1.2. Onartutako ikasleen kopurua eta profila

2022-23 ikasturtean, 248 ikaslek egin dute behin betiko matrikula; hortaz, eskainitako plaza kopurua (250) kontuan hartuta, tituluaren okupazioa % 97,2koa izan zen. Ikasle horietatik % 92,18k (tituluaren egokitzapena) lehen aukera gisa aukeratu dituzte ikasketak.

Azken urteetako joera aztertuta, ikus dezakegu batez besteko nota (11,63) eta gutxieneko nota areagotuz eta mantenduz joan direla; ikasturte honetan, 10,74 izan da. Ikasle gehienak selektibitatea eginda sartzen dira unibertsitatera. Lanbide heziketatik sartutakoak jaitsi egin dira aurreko ikasturtearen aldean (11tik 3ra). Lehenengo mailan ikasketak uzten dituztenen tasa txikia izan da beti, eta % 4an mantendu da. Aurreko ikasturteetan bezala, ez dago alde nabarmenik ikasketak uzten dituztenen sarbideari dagokionez; 25 eta 45 urtetik gorakoek eta lanbide heziketakoek dute abandonatze tasa handiena, baina oso jende gutxi sartzen da bide horietatik.

IKASLEEN SARRERA PROFILA. SARBIDEA								
	2019		2020		2021		2022	
Lanbide heziketa	Gaztelania	3	Gaztelania	9	Gaztelania	8	Gaztelania	1
	Euskara	3	Euskara	3	Euskara	3	Euskara	2
	Guztira	6	Guztira	12	Guztira	11	Guztira	3
25 urtetik gorakoak	Gaztelania	4	Gaztelania	3	Gaztelania	3	Gaztelania	4
	Euskara	0	Euskara	0	Euskara	0	Euskara	0
	Guztira	4	Guztira	3	Guztira	3	Guztira	4
45 urtetik gorakoak	Gaztelania	1	Gaztelania	0	Gaztelania	2	Gaztelania	1
	Guztira	1	Guztira	0	Guztira	2	Guztira	1
	Gaztelania	116	Gaztelania	94	Gaztelania	99	Gaztelania	108
Selektibitatea	Euskara	111	Euskara	121	Euskara	115	Euskara	116
	Guztira	227	Guztira	215	Guztira	214	Guztira	224
	Gaztelania	1	Gaztelania	2	Gaztelania	3	Gaztelania	3
Unibertsitateko tituludunak	Euskara	0	Euskara	1	Euskara	3	Euskara	3
	Guztira	1	Guztira	3	Guztira	6	Guztira	6
	Gaztelania		Gaztelania		Gaztelania		Gaztelania	
Goi mailako kirolariak	Euskara		Euskara		Euskara		Euskara	
	Guztira		Guztira		Guztira		Guztira	
	Gaztelania		Gaztelania		Gaztelania		Gaztelania	
Desgaituen plazak	Euskara		Euskara		Euskara		Euskara	
	Guztira		Guztira		Guztira		Guztira	

GUZTIRA	239	233	236	238
----------------	------------	------------	------------	------------

Emaitzak aztertuta, ondoriozta daiteke sarrerako profila egokia dela eta ez dagoela aldatu beharrik.

1.3.2. IRAKASKUNTZAREN EMAITZAK, EGRESATUEN PROFILA ETA LANERATZEA

1.3.2.1. Errendimendu akademikoaren tasak

Errendimendu akademikoaren tasa guztiek emaitza onak dituzte oraindik ere; izan ere, errendimendu tasaren emaitza % 90,12 da, arrakastarena % 95,68, eta ebaluazioarena % 94,19. Bigarren mailan zertxobait txikiagoak izan badira ere, datuak aztertuta ondorioztatu da zailtasun handieneko nahitaezko bi irakasgaiak elkartzen direlako gertatzen dela hori.

Lehen urteko abandonatze tasa % 4 da; hortaz, tituluaren diseinuan aurreikusitakoaren barruan gaude oraindik.

1.3.2.2. Mugikortasuna

Jarraian agertzen diren tauletan ikus daitekeenez, hauek dira mugikortasun programan parte hartu duten ikasleen emaitzak, UPV/EHUtik beste unibertsitate batzuetara (*outgoing*) eta gure Psikologia Fakultatera (*incoming*) etorri diren kanpoko ikasleenak.

	2019-20 PROGRAMA (RRI)	Ikas. kop.	2020-21 PROGRAMA (RRI)	Ikas. Kop.	2021-22 PROGRAMA (RRI)	Ikas. Kop.	2022-23 PROGRAMA (RRI)	Ikas. Kop.
OUTGOING	Latinoamerika	36	Latinoamerika	2	Latinoamerika	22	1 Latinoamerika	34
	Erasmus +	28	Erasmus +	18	Erasmus +	34	2 Erasmus +	31
	Beste norako batzuk	2	Beste norako batzuk	0	Beste norako batzuk	8	3 Beste norako batzuk	2
	Sicue	13	Sicue	17	Sicue	26	4 Sicue	28
		79		37		90		95

	2019-20 PROGRAMA (RRI)	Ikas. Kop.	2020-21 PROGRAMA (RRI)	Ikas. Kop.	2021-22 PROGRAMA (RRI)	Ikas. Kop.	2022-23 PROGRAMA (RRI)	Ikas. Kop.
INCOMING	Latinoamerika	17	Latinoamerika	1	Latinoamerika	18	1 Latinoamerika	31

Erasmus +	13	Erasmus +	2	Erasmus +	17	2 Erasmus +	25
Beste norako batzuk	6	Beste norako batzuk	0	Beste norako batzuk	1	3 Beste norako batzuk	2
Sicue	7	Sicue	3	Sicue	5	4 Sicue	6
	43		6		41		64

2021-2022 ikasturtearen aldean, mugikortasun datuek adierazten dute ikasle gehiago joan direla eta etorri direla programa guztietan (Latinoamerika, Erasmus, Beste norako batzuk eta Sicue). Hori horrela, 2022-2023 ikasturtean, datuek adierazten dute 95 ikasle joan zirela, eta 64 ikasle etorri zirela; guztira, 159 ikasleren gestioak egin ziren. Aipatzekoa da 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetan etorri eta joan ziren ikasleen kopuru handia SARS-CoV-2 birusaren gaixotasunak eragindako pandemiaren ondorioz izandako beherakadak ekarri duela neurri batean. Espero da kopuru horiek behera egingo dutela datozen urteetan.

Datuetatik ondorioztatzen da 2019-2023 Plan Estrategikoaren ondoriozko gure nazioartekotze estrategian adierazitako helburu gehienak lortu ditugula.

Eskainitako Erasmus+ helmugen artean, gure ikasleak gehien erakartzen dituztenak Italia (La Sapienza) eta Belgika (Universite Catholique de Louvain, Universiteit Gent) dira. Halaber, ikastegiak hitzarmen ugari ditu Latinoamerikarekin, eta gure ikasleek batik bat Argentinako eta Txileko unibertsitateak eskatzen dituzte. Gainera, Psikologia Fakultatea da Latinoamerikara truke ikasle gehien bidaltzen duen titulua.

1.3.2.3. Eleaniztasuna

2022-23 ikasturtean, Psikologia Fakultateak 7 irakasgai eskaini zituen ingelesez: Social Psychology (25041), Data & Design Analysis: Non Experimental Method (25050), Psychology of the Family (25058), Group Psychology (25071), Multiculturalism & Multilingualism in Complex Societies (25079), Design & Analysis of Data: The Experimental Method (25088) eta Health & Dependency Disorders (25094). Gainera, 8 irakasgai eskaini ziren English Friendly Courses (EFC) gisa, hau da, tutoretzak, irakaskuntza gida eta azterketa ingelesez egin daitezkeen irakasgaitzat.

1.3.2.4. Tituludunaren profila.

Lanbidek egindako inkestan jasotzen diren enplegu datuak % 78ko enplegu tasak, % 87ko okupazio tasak eta % 13ko langabezia tasak aztertu ditu. Halaber, erakutsi da ikasketei lotutako enplegua % 86koa dela.

Kanpoko praktiken begiraleen arabera, prestakuntza akademikoari eta gaitasun espezifiko eta zeharkakoei dagokienez, oso ebaluazio positiboak jaso dira, 1-5 arteko eskala batean 4,4ko puntuazioa gainditu baita.

Bestalde, nahitaezko kanpoko praktikak egin ostean ikasleei inkesta egin zaie, practicumean aurreikusita dauden gaitasunen lorpen mailari buruz zer iritzi duten azaltzeko. Kontuan izan behar da, tituluko prestakuntzarik espezializatuena denez, GRALak bezala, gaitasun horiek garrantzi handia dutela graduko gaitasunak eskuratzeko. Lortutako emaitzei dagokienez, 127 ikaslek erantzun zioten inkestari. Ikasleek gaitasunak eskuratzearekin lotuta duten iritzia ona eta bikaina artean dago, emaitzen taula honetan xehatzen den moduan:

GAITASUNAK ESKURATZEA PRAKTIKETAN							
	n=126	Bikaina	Ona	Nolabai tekoa	Txarra	Oso txarra	ED/ EE
Desberdintasunak, beharrak eta/edo arazo indibidualak, taldekoak edo taldeen artekoak identifikatzea, beren jokabideak garatzen diren testuinguruak kontuan hartuta.	68	51	4	0	0	3	
Helburuak zehaztea eta oinarrizko esku hartze plana egitea, xedearen arabera.	45	55	15	2	0	10	
Hartzaileengan esku hartzeko oinarrizko estrategiak eta/edo metodoak aplikatzea: aholku psikologikoa, aholkularitza, negoziazioa, bitartekaritza...	46	52	11	4	1	12	
Ahozko eta/edo idatzizko txosten teknikoak egitea, edo hartzaileei atzeraelikadura egokia eta zehatza ematea.	42	50	13	2	4	19	
Arazoak konpontzea eta erabakiak hartzea.	61	56	9	1	2	1	
Erantzukizunak onartzea eta diziplina arteko taldeetan lan egitea.	79	35	6	1	1	6	
Ikuspegi etikoa izatea lanbidearen arlo desberdinetan, kode deontologikora egokituta.	83	34	3	0	1	7	
Erantzunak, GUZTIRA	424	333	61	10	9	58	

Praktikaren ebaluazio orokorra (n = 125) **bikaina** da 89 pertsonarentzat (% 71,2); **ona** da 20rentzat (% 16), **nolabaitekoa** 15entzat (% 12) eta **txarra** batentzat (% 0,8).

Horri dagokionez lortutako emaitzek erakusten digute ikasleek ebaluazio oso ona egin dutela practicumaren gaitasunen eskuratzeko mailari eta praktiken esperientziari buruz duten pertzepzioari buruz.

1.3.2.5. Laneratzea

Lanbidek egindako inkestan jasotzen diren enpleguari buruzko datuek adierazten dutenez, 2022an enplegu tasak % 78koak dira, okupazio tasak % 87koak eta langabezia tasa % 13koa Psikologian egresatutakoentzat. Era berean, ikasketei lotutako enplegua % 86koa da. Datu positiboak dira, nahiz eta aurreko inkestekin alderatuta enplegu tasak behera egin duen. Laneratzeari buruzko datu horiek aztertuta, ondorioztatzen da, enplegu tasa jaisten ez jarraitzeko, etorkizunera begira, ekintza zehatzak proposatuko direla parametro horiek aztertzearen eta jarraitzearen ondorioz.

1.3.3. GOGOBETETZEA

1.3.3.1. Ikasleen gogobetetzea

Ikasleen iritzia tituluaren hainbat unetan jasotzen da; lau ikasturteetan irakasgai bakoitzaren irakaskuntzarekiko gogobetetasuna ebaluatzen da, eta laugarren mailan iritzia eskatzen zaie egindako kanpoko praktiken gogobetetzeari buruz.

Ikasleek jasotako irakaskuntzari buruz eginiko balorazioa:

Psikologiako Graduari buruzko UPV/EHUko unibertsitate esperientziari buruzko inkestari (2020/22ko gradu txostena), zehazki, laugarren mailako 165 ikaslek erantzun zioten (biztanleria osoaren -603 pertsona- % 27,36). Horietako 100 pertsonak gaztelaniaz ikasten dute, eta 65 euskarako taldekoak dira. % 87,3 emakumeak dira, % 12,1 gizonak, eta % 0,6 ez binarioak. % 34,5ek 21 urte ditu, % 58,2k 22-24 urte, % 6,1ek 25-30 urte eta % 1,2 30 urtetik gora.

Galdetegi honetan erronka akademikoaren kalitatea (4), ikaskideekin ikastea (1), irakasleekin izandako esperientzia (2) eta campuseko giroa (2) neurtzen dira.

60ko eskalan barematutako datuak batez bestekoak dira (30 ingurukoak), ikaslearen eta irakaslearen arteko elkarreraginari buruzko gaia izan ezik; hain zuzen ere, irakasleekiko elkarreraginaren kalitatea eta aberastasunari dagokio, eta, ikasgelako jarduera formala bazter utzita, ikasleen garapen intelektualari eta ikasketetan jarraitzeari mesede egiten dio.

Unibertsitate esperientzia. Psikologiako txostena 20-22					
EMAITZEN KONPARAZIOA	Euskara taldea	Gaztelania taldea	PSIKO. GRAD.	Osasun zien. adarra	UPV/EHU
Goi mailako ikaskuntza	27,46	29,60	28,76	28,78	27,52
Ikaskuntza gogoetatsua eta integratzailea	32,62	36,17	34,77	31,89	28,97
Ikaskuntza estrategiak	32,82	34,60	33,90	35,56	32,17
Arrazoibide kuantitatiboa	26,15	28,27	27,43	25,23	24,27
Ikaskuntza kolaboratiboa	37,46	37,35	37,39	37,71	36,91
Ikasle eta irakasleen arteko elkarreragina	10,00	9,90	9,94	10,22	11,49
Irakaskuntza praktika eraginkorrak	29,97	28,64	29,16	28,19	26,83
Ikasleei orientatutako campusa	23,07	21,70	22,24	18,77	18,53

Balioak: 60ko eskala

Iturria: UPV/EHUUn BIZI! Psikologiako Graduaren txostena 20/22. SAE/HLZ.

Psikologiako Graduan lortutako emaitzak apur bat altuagoak dira UPV/EHUko gainerako graduekin alderatuta, irakasleekiko elkarreraginaren gaian izan ezik; izan ere, baxua izateaz gainera, gainerako graduetan baino baxuagoa da.

Ikasleek graduiko ikasketekin duten gogobetetzea					
Zein puntutaraino sentitzen zara trebatuta...	Euskara taldea	Gaztelania taldea	PSIKO. GRAD.	Osasun zien. adarra	UPV/EHU
zure arloko ezagutza teoriko espezifikoan?	% 50,52	% 57	% 54,47	% 60,57	% 53,75
zure arloko metodo eta prozedura praktikoetan?	% 36,98	% 32	% 33,94	% 48,39	% 45,39
idatzizko komunikazioaren gaitasunetan?	% 59,37	% 60,33	% 59,96	% 56,92	% 55,04
ahozko komunikazioaren gaitasunetan?	% 54,17	% 51,33	% 52,44	% 52,75	% 50,87
genero berdintasunean?	% 61,98	% 61,67	% 61,79	% 59,61	% 57,05
arazoak konpontzeko gaitasunean?	% 51,5	% 56,33	% 54,47	% 54,14	% 56,55
pentsemendu kritikoan?	% 63,54	% 65	% 64,43	% 58,24	% 61,01
talde lanean?	% 78,65	% 77,33	% 77,85	% 74,05	% 70,63
plangintza, koordinazio eta antolakuntzan?	% 66,15	% 68,33	% 67,48	% 66,98	% 62,95
lidergoan?	% 41,67	% 49,67	% 46,54	% 45,08	% 46,46
etika eta gizarte erantzukizunean?	% 71,87	% 71	% 71,34	% 68,05	% 56,04
sormenean?	% 45,83	% 40	% 42,28	% 38,63	% 43,72
teknologia berrietako trebetasunetan?	% 52,08	% 55,67	% 54,27	% 49,32	% 52,21
atzerriko hizkuntza menderatzean?	% 45,31	% 39,33	% 41,67	% 36,09	% 39,93

Zure ustez, unibertsitateak behar bezala trebatu zaitu ikasi duzun espezialitatean lan egiteko?

		% 24,5		% 34,5
Erantzunak: Bai	% 20	9	% 22,92	% 49,80
				2

Iturria: UPV/EHU Un BIZI! Psikologiako Graduaren txostena 20/22. SAE/HLZ.

Ikasleak bere unibertsitate esperientziari buruz duen pertzepzioak eskaintzen digun konparazioan ikus dezakegu, oro har, Psikologiako ikasleek uste dutela ez dagoela hain prestatuta bere espezialitatean lan egiteko beste karrera batzuekin alderatuta, batez ere Osasun Zientzien adarrarekin alderatuta. Gai zehatzagoei dagokienez (besteak beste, taldean lan egiten jakitea, etika eta erantzukizun soziala, pentsamendu kritikoa edo genero berdintasuna), gure ikasleek uste dute beste gradu batzuetako ikasleak baino hobeto prestatuta daudela. Horri esker, baikorrak izan gaitzke, beharbada kritikoagoak direlako jasotako prestakuntza teoriko-praktikoari dagokionez, hain zuzen ere, ikasgeletatik jarrera kritikoa sustatzen delako garapen profesionalaren zati gisa.

Curriculumeko kanpoko praktiken balorazioa:

Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuaren inkesten emaitzen arabera, praktiken balorazio orokorra oso positiboa da, eta horretan bat datoz ikasleak, begiraleak eta barneko tutoreak. Halaber, praktiketako zentroaren balorazioa oso positiboa da hiru eragileen aldetik. Azkenik, gogobetetze inkestek erakusten dute emaitza onak erdietsi direla Fakultateak praktikak kudeatu eta antolatzeari dagokionez; hala ere, ikasleak apur bat kritikoagoak dira neurri horretan, batez besteko balorazioari eusten dioten arren.

**PRAKTIKEI BEGIRAKO GOGOBEETZE INKESTAK
NAHITAEZKO KANPOKO PRAKTIKAK 2022-2023**

	Ebaluazio arloak			
	Orokorra	Praktiketako zentroa	Fakultatearen gestioa	Autoebaluazioa
Ikasleak	4,4	4,5	3,6	-
Barneko tutoreak	4,8	4,7	4,4	4,4
Begiraleak	4,4	4,7	3,9	4,5

Begiraleek praktiketako ikasleei buruz egindako balorazioari dagokionez, oso positiboa da, ebaluatutako item guztietan 4/5etik gorako puntuazioa lortu delako. Begiraleek bikain eman diote batez besteko azken kalifikazioa gisa ikasleei, 4,56 punturekin; hau da, 9,05/10 notaren baliokidea lortu da. Balorazio horretan, begiraleek biatal ebaluatzen dituzte: alderdi eta gaitasun orokorrak eta gaitasun

espezifikoa. Alderdi eta gaitasun orokorrei dagokienez (4,59/5eko batez besteko balorazioa), begiraleek oso positiboki ebaluatu dute ikaslearen prestakuntza akademikoa (4,41/5), eta hainbat alderdi nabarmentzen dituzte, besteak beste: ikasteko gaitasuna (4,68/5), erantzukizunaren zentzua (4,69/5) edo bertaratzea eta puntualtasuna (4,78/5). Gaitasun espezifikoei dagokienez (4,3/5eko batez besteko balorazioa), kode deontologikoaren arabera ikuspuntu etikoa hartzeko gaitasuna (4,65/5) edo erantzukizunak hartzeko eta diziplinarteko taldeetan lan egiteko gaitasuna (4,44/5) nabarmentzen dira. Azkenik, % 4,2k soilik erantzun du ezetz.

1.3.3.2. IRIen eta TEKAZELen gogobetetzea

Kalitate eta Ebaluazio Instituzionalerako Zerbitzuak egindako gogobetetze inkesta 2022ko maiatzean egin zen (bi urtean behin egiten da). TEKAZEL kolektiboaren parte hartze maila % 57,89koa izan da; IRIen kolektiboarena, aldiz, % 37,93koa.

TEKAZEL

TEKAZEL kolektiboaren barruan, oro har, emaitzak gogobetegarriak dira, eta gogobetetze orokorra 4,45ekoa da (1-6 eskala). Ia-ia item guztiek gainditzen dute 4. Honako hauek dituzte emaitza txarrenak: "Lanaldiak kontziliaziorako aukera ematen du" (3,82), "Nire zereginen eta erantzukizunen definizioa" (3,82), "TEKAZELen prestakuntza" (3,36), "Nire ibilbide profesionala garatzeko aukerak" (2,73), "Egindako lanaren aitortza" (3,73) eta "UPV/EHUren webgunean eskuragarri dagoen informazioa" (3,64).

Alderdi horiek ez dira zuzenean Ikastegiko gestioarenak, baina emaitza horiek helarazteko ahalegina egingo da, gogobetetzea hobetzeko. Ikastegiaren gestioari dagozkion eta hobetu behar diren alderdiak hauek dira:

"Nire lantokia egokia da nire lana gauzatzeko" (3,73), "Laneko segurtasuna" (3,8) eta "TEKAZELEk nahiko bide ditu bere kexak eta premiak adierazteko" (3,55).

Kexen eta iradokizunen atalaren barruan, aurretiko hitzorduaren aurkako kexa nabarmendu da.

IRIak

IRIen kolektiboaren barruan, emaitzak gogobetegarriak dira oro har, eta gogobetetze orokorra 4,11koa da (1-6 eskala); irakasle atxikiak dira gogobetetze gutxien duten kategoria. Antzinasunari dagokionez, antzinasun txikiena dutenak dira, eta sexuaren arabera, gizonak dira. Ia item guztiak 4tik gorakoak dira. Hemen daude emaitza okerrenak:

D3: Garapen profesional eta akademikorako aukerekin lotutako itemak, ez baitago behar besteko eta kalitatezko prestakuntza programarik, ezta finantzaketa nahikorik ere, eta, bestalde, egindako lana ez da behar bezala aitortzen.

D4: Laguntza zerbitzuak, baliabideak eta azpiegiturak: Ecampus zerbitzua, UPV/EHUren webgunean eskuragarri dagoen informazioa, ikerketarako laguntza teknikoa, kexak eta beharrianak adierazteko bideak, informatikako ikasgelak...

D5: Ikastegiaren eta/edo Sailaren lidergoa: Ez da 4ra iristen item bakar batean ere. Emaitza okerrenak dituzten itemak hauek dira: "Sailak irakaskuntza kalitatea hobetzen dela bermatzeko behar diren erabakiak hartzen ditu" eta "Sailak giro estimulatzailea eta konfiantzazkoa sustatzen ditu".

D6: Politika instituzionala: Hemen ere item bakar bat ere ez da 4ra iristen. Hauek dira puntuazio baxuena lortu dutenak: Euskararen III. Plan Gidaria, Ikerketa Plana eta Egile Eskubideak eta Jabetza Intelektuala betetzea.

Irakokizunen eta oharren atalean, burokrazia handiegia, lan zama handiegia (gestioa, ikerketa eta irakaskuntza), hizkuntza desberdinetan irakasten duten irakasleen zama handiegia, familia kontziliazioa, soldatak, seiurtekoak, eta abar dira.

Osasun Psikologia Orokorra Unibertsitate Masterra

AURKIBIDEA: OSASUN PSIKOLOGIA OROKORRA UNIBERTSITATE MASTERRA TITULUAREN URTEKO TXOSTENA

2.1. TITULUAREN KALITATEA BERMATZEKO JARDUERAK

2.1.1. OPOMko IKASLEAK ORIENTATZEKO ETA HAIEI PSIKOLOGIA FAKULTATEAN SARTZEN LAGUNTZEKO JARDUERAK

2.1.1.1. **Ikasle berrien harrera**

2.1.1.2. **Tutoretza programa**

2.1.1.3. **Kanpoko praktikei buruzko informazioa**

2.1.1.4. **MALei buruzko informazioa**

2.1.2. IRAKASGAIK KOORDINATZEKO JARDUERAK

2.1.3. TITULUA HOBETZEKO JARDUERAK ETA EKINTZAK

2.1.3.1. **Ikasketa planaren aldaketak**

2.1.3.2. **Irakaskuntza planifikazioa**

2.1.3.3. **Masterreko kanpoko praktiken jarraipena eta hobekuntza**

2.1.3.4. **MALaren jarraipena eta hobekuntza**

2.1.3.5. **Ikasleak laneratzeko jarduerak**

2.1.3.6. **OPOM masterraren publizitatea egiteko jarduerak**

2.1.3.7. **Eskertzak, iradokizunak, kekek eta erreklamazioak**

2.1.3.8. **Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema**

2.2. BALIABIDEAK

2.2.1. BALIABIDE MATERIALEN ETA ZERBITZUEN DESKRIBAPENA

2.2.2. ERABILGARRI DAUDEN GIZA BALIABIDEEN DESKRIBAPENA

2.2.3. MOTIBAZIOA ETA GARAPENA

2.3. EMAITZAK: TITULUAREN JARRAIPENAREKIN LOTUTAKO ADIERAZLEEN BILAKAERAREN AZTERKETA KUANTITATIBOA ETA KUALITATIBOA

2.3.1. PLAZEN ESKAINTZA ETA ESKARIA, ETA SARRERAKO PROFILA

2.3.1.1. **Ikasketen eskaria**

2.3.1.2. **Onartutako ikasleen kopurua eta profila**

2.3.2. IRAKASKUNTZAREN EMAITZAK, EGRESATUEN PROFILA ETA LANERATZEA

2.3.2.1. **Errendimendu akademikoaren tasak**

2.3.2.2. **Egresatuen profila**

2.3.2.3. **Laneratzea**

2.3.3. GOGOBTETZEA

2.3.3.1. **Ikasleen gogobetetzea**

2.3.3.2. **IRIen eta TEKAZELen gogobetetzea**

2. OSASUN PSIKOLOGIA OROKORRA UNIBERTSITATE MASTERRA TITULUAREN URTEKO TXOSTENA

2.1. TITULUAREN KALITATEA BERMATZEKO JARDUERAK

Hiru ataletan sailkatu dira egindako jarduerak: ikasleak orientatzeko jarduerak, gaiak koordinatzeko jarduerak eta irakaskuntza hobetzeko jarduerak.

2.1.1. Masterreko (OPOM) ikasleak orientatzeko eta haiei Psikologia Fakultatean sartzeko laguntzeko jarduerak

2.1.1.1. Ikasle berrien harrera

Ikasle hasi berriei harrera eta ongietorria egiteko ekitaldia 2023ko irailean egin zen, Psikologia Fakultateko Gradu Aretoan. Bertan parte hartu zuten dekanook, masterreko zuzendariak, masterreko Batzorde Akademikoko kideek eta masterreko administrazio idazkariak. Masterraren antolaketari buruzko alderdi interesgarriak azaldu ziren, hala nola: masterraren Batzorde Akademikoa; masterraren egitura eta ezaugarri nagusiak; irakasgai eskaintza; kanpoko praktikak; master amaierako lana; irakasleak; egutegi akademikoa eta baliabide materialak. Halaber, ikasleei matrikula egiterakoan bidaltzen zaien irakaskuntza gida erabilgarria dela azpimarratu zen izan ditzaketen zalantzak kontsultatzeko.

2.1.1.2. Tutoretza programa

Masterra egin bitartean, masterreko zuzendariak, praktiketako dekanordeak eta horretarako izendatutako AZPko langileak ematen diete arreta ikasleei, eta ikasleen kontsultei erantzuten diete. Gainera, eta, zehazki, praktikak egiteari dagokionez, ikasleek barneko

tutore bat dute, masterra ematen duten irakasleen artean, praktiketan eta praktiken memoriari buruz sor daitezkeen zalantza eta galderei erantzuteko.

Amaitzeko, ikasleek master amaierako lana zuzentzeaz arduratuko den irakaslearen aholkularitza jasotzen dute. Pertsona hori ikasleak aukeratzen du irakasleen plantillako kideen artean.

2.1.1.3. Kanpoko praktikei buruzko informazioa

Masterreko zuzendariak eta Kanpoko Praktiken eta Enplegarritasunaren arloko dekanordeak nahitaezko kanpoko praktiken eskaintzari eta plazak eskatzeko eta adjudikatzeko prozedurari buruzko informazio saio baterako deia egin zieten masterreko ikasleei.

Informazio guztia eskuragarri dago [webgunean](#).

2.1.1.4. MALei buruzko informazioa

Masterraren lehenengo mailaren amaieran, zuzendariak MALari buruzko informazio saio baterako deia egin zien ikasleei, eta MALaren erregelamenduari eta prozesuari buruzko informazioa eman zitzaient bertan.

Lanen zuzendari izan zitezkeen irakasleen zerrenda aurkeztu zen, ikasleak haiekin harremanetan jartzen has zitezten, eta irakasle bakoitza zein arlotan espezializatuta dagoen ere zehaztu zen. Ikasleei jakinarazi zitzaient MALaren zuzendarien esleipena eta gaien aukeraketa masterraren bigarren mailaren hasieran egin behar dela (iraila-abendua).

Informazio guztia eskuragarri dago [webgunean](#).

2.1.2. IRAKASGAIK KOORDINATZEKO JARDUERAK

Ikasturtea hasi aurretik, Batzorde Akademikoak martxan jarri zuen irakasgaietako irakasle taldeek edukiak, jarduerak eta ebaluazioa koordinatzeko erabiltzen duten prozesua.

Irakasle talde guztiek bilera bat egiten dute irakasgaia ematen hasi aurretik, eta beste bilera bat amaitutakoan, ikasleen ebaluazioan oinarritua.

Batzorde Akademikoak koordinatzaile bat izendatu zuen irakasgai bakoitzerako. Irakasle taldeek zenbait ikasturtez ari dira lanean, eta, talde batzuetan, koordinazio bilera horiek birtualki egiten dituzte, koordinazioa arintzeko.

Irakasgaiari eta irakasle taldeari buruzko informazio guztia Masterraren Ikasketen Gidaliburuan argitaratzen da, zeina ikasleei eskura banatzen zaien eta webgunean ere eskura daitekeen. Era berean, irakasgaiari ematen duen lehen irakasleak hari buruzko guztia jakinarazten du: irakasgaiaren helburuak eta gaitasunak, gai zerrenda (eduki teorikoak eta praktikoak), gaia irakasten duten irakasleak, ebaluaziorako prozedurak, etab.

2.1.3. TITULUA HOBETZEKO JARDUERAK ETA EKINTZAK

2.1.3.1. Ikasketa planaren aldaketak

2022-23 ikasturtean ez da aldatu ikasketa plana.

2023-2024 ikasturtean, OPOren garapen berriak: II hautazko irakasgaiaren edukia aldatu zen, ikasle gutxi matrikulatu zirelako. Prozesu horren ondorioz, hautazko irakasgai berri bat eskaini da; ikusi egin beharko da zer-nolako bilakaera duen.

Ikasturte honetatik aurrera egingo diren hobekuntzei dagokienez (2022-2023), gure graduako eta graduondoko ikasleek EHU appStore aplikazioaren bidez ikasgai desberdinetan erabiltzen diren software espezifikotara sartu ahal izango dute edozein lekutatik. Ikasturte bakoitzaren hasieran emango zaie horren berri ikasleei.

2.1.3.2. Irakaskuntza planifikazioa

Masterreko Batzorde Akademikoak irakaskuntza plangintza bat prestatu zuen, eta proposatu zuen irakasle-ikertzaileen irakaslana egiaztapen memorian jasotako eta Fakultateko Batzarrak onartutako irizpideen arabera banatzea. Kanpoko irakasleekin harremanetan jarri zen, libre zeudela ziurtatzeko. Jarraian, irakaslana banatzeko proposamena sailei aurkeztu zitzaizkien, berrets zezaten. Prozesu hori guztia Akademia Antolakuntzako dekanordearekin koordinatuta gauzatu zen. Hark prestatu zituen ordutegiak, eta WebUntis sisteman argitaratu ziren (webgunean eskura daitezke). Prozesu hori ikasturte bakoitzeko martxotik ekainera bitartean egiten da.

2.1.3.3. Masterreko kanpoko praktiken jarraipena eta hobekuntza

2022-23 ikasturtean, 46 ikaslek parte hartu zuten, guztira, masterreko prestakuntza praktikoan. Aurreko ikasturteetan bezala, ikasleek maiatzean egiten dute aurretiko izen ematea, euren interesen arabera. Ondoren, Ikastegiak zentroak esleitzen dizkie ikasleei, espediente akademikoaren arabera. Praktiken aukeraketa zuzeneko adjudikazioaren bitartez kudeatzeko aukera ahalbidetzen da.

Praktiketako dekanordea eta Masterreko zuzendaritza praktiketako ikasleen tutoretza egin dezaketen zentroekin harremanetan jartzen ahalegintzen dira.

Informazio guztia eskuragarri dago [webgunean](#).

2.1.3.4. MALaren jarraipena eta hobekuntza

Irakasleek eta masterreko zuzendariak MALaren inguruko orientazio lanak egiten dituzte. Tutoretza horiek ikasleen interesak egituratzeari buruzkoak dira; izan ere, batzuk nahiko desorientatuta daude egin dezaketenari eta egin ezin dezaketenari eta aukeratu beharreko arloei buruz. Tutoretza lanari esker, ikasleen interesetan sakontzen da, eta aukeratutako gaien sakontzeko irakasle egokienari buruzko informazioa ematen da. Gainera, masterraren zuzendaritzaren zeregina da MALaren zuzendariak aldatzea, baldin eta tutorearen eta ikaslearen arteko harremanean zailtasunak badaude.

2.1.3.5. Ikasleak laneratzeko jarduerak

Gai honi buruzko datuak txosten honetako 1.3.2.4 atalean kontsulta daitezke.

Posta elektronikoz, masterraren zuzendaritzak jasotzen dituen eta interesgarriak izan daitezkeen lan eskaintzak helarazten zaizkie ikasleei.

2.1.3.6. OPOM masterraren publizitatea egiteko jarduerak

Masterraren webgune eguneratua hau da:

<https://www.ehu.eus/eu/web/master/osasun-psikologia-orokorra-masterra>.

Webgunean ageri dira masterraren aurkezpena, helburuak eta gaitasunak, programa eta irakasle taldea, antolakuntza, sarbidea eta matrikula, baliabide materialak, ordutegia, egutegia eta harremanetarako helbideak. Era berean, ikusgai dago praktikei buruzko

informazioa, aurretiko izen emateari eta matrikulari buruzkoa eta tituluaren egiaztapen, jarraipen eta akreditazioari buruzkoa, eta ikasketen gidaliburuak ere eskura daitezke. Informazioa bi hizkuntzatan dago webgunean (gaztelaniaz zein euskaraz).

Masterra zabaldu eta balizko ikasleak erakartzeko, Masterreko Batzorde Akademikoak "Master Week" jardunaldian parte hartu zuen. Oraingoan, online egin zen. Urteroko legez, jardunaldi horretan UPV/EHUko graduondoko eskaintzari buruzko informazioa ematen da, master bakoitzari (kasu honetan, Osasun Psikologia Orokorra Masterra) buruzko zenbait "stand birtualetan" eta hitzaldi espezifikoetan.

2.1.3.7. Eskertzak, iradokizunak, kexak eta erreklamazioak
Ikus Graduaren txosteneko 1.1.3.8 puntua.

2.1.3.8. Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema
Ikus Graduaren txosteneko 1.1.3.9 puntua.

2.2. BALIABIDEAK

2.2.1. BALIABIDE MATERIALEN ETA ZERBITZUEN
DESKRIBAPENA

Ikus Graduaren txosteneko 1.2.1 puntua.

2.2.2. ERABILGARRI DAUDEN GIZA BALIABIDEEN
DESKRIBAPENA

2022-23 ikasturtean, irakasleen plantilla 48 irakaslek osatzen zuten; horietatik % 73 (35) UPV/EHUko irakasle eta irakasleak dira, eta gainerako % 27a (13) kanpoko irakasleak.

UPV/EHUko irakasleen artean, 35 pertsona horietako soilik bakarra ez da doktorea. % 66 emakumeak dira, eta % 34 gizonak. Orokorrean, irakasle guztien artean 65 ikerketa seiurteko metatzen dituzte, eta irakaskuntzan esperientzia izateari dagokionez, 104 bosturteko guztira. Gainera, 35 irakasle horien % 74k Docentiaz ebaluazio positiboa jaso dute.

Masterrean irakaskuntza ematen duen kanpoko irakasleen % 54 gizonak dira (7), eta % 46 emakumeak (6). Kanpoko irakasleak askotariko zerbitzuetan lan egiten duten profesionalak dira, eta ikasleek praktikak egiten dituzten zentro batzuetako tutoreak ere izan daitezke. Horri esker, lotura dago prestakuntza teorikoaren eta praktikoaren artean, eta lan

profesionalaren zuzeneko transmisioa.

2.2.3. MOTIBAZIOA ETA GARAPENA

Ikus Graduaren txosteneko 1.2.3 puntua.

2.3. EMAITZAK: TITULUAREN JARRAIPENAREKIN LOTUTAKO ADIERAZLEEN BILAKAERAREN AZTERKETA KUANTITATIBOA ETA KUALITATIBOA

2.3.1. PLAZEN ESKAINTZA ETA ESKARIA, ETA SARRERAKO PROFILA

2.3.1.1. Ikasketen eskaria

Titulu honek eskaera handia dauka. 350 pertsonak eman zuten izena, eta azkenean, 44 ikasle matrikulatu ziren; hortaz, eskainitako plaza guztiak bete ziren. Ikasle guztiak espainiar tituludunak dira.

2.3.1.2. Onartutako ikasleen kopurua eta profila

Guztira 44 ikasle onartu ziren, eta 23-24 ikasturtean 7,96 izan zen gutxieneko nota. Horrek adierazten du profil eta errendimendu akademiko handiko ikasleak ditugula. Horiek guztiek lehen aukera gisa aukeratu zituzten ikasketa hauek; hortaz, tituluaren egokitasunaren emaitza bikaina da (% 100). Hala, ondoriozta dezakegu sarrerako profila egokia dela, bai akademikoki, bai titulua egiteko interesari dagokionez.

2.3.2. IRAKASKUNTZAREN EMAITZAK, EGRESATUEN PROFILA ETA LANERATZEA

2.3.2.1. Errendimendu akademikoaren tasak

Emaitzak oso onak dira errendimendu akademikoaren tasa guztietan: errendimendu tasaren emaitza % 97,80 da, arrakastarena % 100 eta ebaluazioarena % 97,80. Tasa guztiak aurreko urteetakoak baino zertxobait handiagoak dira, eta horrek adierazten du hobekuntzarako joera dagoela balio horiek adierazten duten bikaintasun mugen barruan.

2.3.2.2. Egresatuen profila

Ikastegietako begiraleek balorazio bikaina egin dute graduoko gure ikasleen inguruan (4,5/5). Oso ontzat jotzen dituzte (puntuazioa ≥ 4) "Ikasleen prestakuntza akademikoa", "Ahoz zein idatziz komunikatzeko trebetasunak", "Erantzukizun sena", "Inplikazio pertsonala", "Kritikak onartzeko gaitasuna", "Motibazioa", "Bertaratzea eta puntualtasuna", "Lan ingurunearekiko harremanak" eta "Taldean lan egiteko gaitasuna".

OPOMeko ikasleek masterrean lortu beharreko gaitasunei dagokienez, begiraleek 3,7ko puntuazioa eta 4,3koa eman dute 5etik ("Sustapen eta heziketa jarduerak egitea, osasun psikologiko indibidual eta komunitarioa sustatzeko eta horren inguruan hezteko" eta "Osasun psikologo orokorraren lan esparrua ezagutzea eta dagokion profesional espezialistarengana bideratzen jakitea", hurrenez hurren). Begiraleen %81ek gomendatuko luke praktiketan hartu dituzten ikasleak kontratatzea.

2.3.2.3. Laneratzea

Adierazle horien erreferentziazko biztanleria LANBIDEk 2019an egindako inkestari erantzun dion promozioko graduatuen kopurua da. Lortutako datuek adierazten dute egresatuen gogobetetzea 10etik 6,85ekoa dela.

Enplegu tasa % 91,67ra igotzen da, egresatuen (emakumeak) kasuan 90,48koa da eta gizonezko egresatuen kasuan 100ekoa. Ikasketei lotutako enpleguari dagokionez, ehunekoa % 90,91 da.

2.3.3. GOGOBBETETZEA

2.3.3.1. Ikasleen gogobetetzea

Ikasleek gogobetetzeari buruzko hiru inkesta bete dituzte. Lehenak masterreko irakasgai bakoitzeko eduki, erabilgarritasun eta koordinazioarekiko gogobetetzea aztertzen du, baita kanpoko praktikei

eta MALari begirako gogobetetzea ere (inkesta hori bi urtean behin aplikatzen da). Bigarrenak ikasleek irakasleek irakatsitakoari begira duten gogobetetzea aztertzen du, eta hirugarrenak, berriz, praktikekiko gogobetetze maila neurtzen du.

Masterreko irakasgaien edukiari, erabilgarritasunari eta koordinazioari, bai eta kanpoko praktikei eta MALari buruzko balorazioari dagokionez ere, ikasleei eskatu zitzaien gogobetetze maila adierazteko, 1etik 5era bitarteko eskala batean, masterreko irakasgai bakoitzarekiko. Emaitzek adierazten dutenez, gogobetetze maila 3,4tik 5,0era bitartekoa da. Hautazko irakasgai batek jaso zuen puntuazio txikiena, eta, horregatik, aldatu egin da.

Bestalde, egindako MALaren kalitateak jaso zuen puntuazio handiena, eta nabarmentzekoak izan ziren, halaber, egindako praktikekiko gogobetetze maila, MALaren zuzendaritzarekikoa eta MALa egiteko orientazio gidarekikoa.

Irakasleek emandako irakaskuntzarekiko ikasleen gogobetetzearen balorazioari dagokionez, honako alderdi hauek aipa daitezke:

Lehenik eta behin, aipatzekoa da ebaluatutako irakasle kopuru handia (% 81).

Matrikulatutako ikasleen % 68,07 joaten dira, batez beste, eskoletara, eta jasotako erantzunen ehunekoak % 81,68 izan da, matrikulak kontuan hartuta. Bi kasuetan, ehunekoak aurreko ikasturtekoak baino txikiagoak dira.

Irakasgaien zailtasun maila ertaintzat hartzen da, eta ez dira irakasgai asko hartzen oso erraztat, ezta oso zailtat ere.

Ikasleek irakasgaiak egin aurretik eta ondoren irakasgaiekin duten batez besteko interesa konparatuz gero, balantzea positiboa da argi eta garbi: horrela ebaluatu dute % 85,42k. Are gehiago, % 35,42k 0,5etik gorako balantze positiboa egiten dute, eta % 2,08k 1etik gorako balantze positiboa.

Ikasleek irakasleei buruz duten iritziari dagokionez, lortutako batezbestekoa oso ona izan da (4,4, 1etik 5erako eskalan). Gainera, irakasleen % 45,83k 4,5 puntu baino gehiago jaso dituzte.

Ikasturte honetako emaitzak aurreko ikasturtean jasotakoarekin alderatuz gero, argi ikusten da behera egin dutela hainbat adierazlek. Azpimarragarria da, esaterako, behera egin duela eskoletara joateko batez besteko asistentziaren ehunekoak. Behera egin dute, halaber, matrikulari dagokionez lortutako emaitzen ehunekoak eta irakasgaiekiko interes balantzearen batezbestekoak. Datu horiek aztertu egingo dira, jakina.

Curriculumeko kanpoko praktiken balorazioa:

MASTERREKO CURRÍCULUMEKO KANPOKO PRAKTIKEI BEGIRAKO GOGOBETETZE INKESTAK 2022-2023

Ebaluazio arloak

	Orokorra	Praktiketako zentroa	Fakultatearen gestioa	Autoebaluazioa
Ikasleak	4,5	4,4	3,8	-
Barneko tutoreak	-	-	-	-
Begiraleak	-	-	-	-

* Ez da eman begiraleei eta barneko tutoreei buruzko daturik, ez dagoelako lagin nahikoa.

Masterreko ikasleek praktikei begira duten gogobetetze mailari dagokionez, balorazio orokorra eta zentroaren balorazioa oso onak dira. Fakultateak praktikak kudeatzeko duen moduari egin dioten balorazioa zertxobait baxua da, nahiz eta hobetu egin den aurreko ikasturtearekin alderatuta.

Ikastegietako begiraleek bikain baloratu dituzte oro har masterreko ikasleak (4,68/6); 10etik 9,21eko azken kalifikazioaren baliokidea.

Alderdi eta gaitasun orokorre dagokienez (4,67/5eko batezbesteko balorazioa), irakasleek oso modu positiboan ebaluatzen dute ikaslearen prestakuntza akademikoa (4,61/5), eta zenbait alderdi nabarmentzen dituzte, hala nola erantzukizun sena (4,87/5), motibazioa (4,82/5) edo taldean lan egiteko gaitasuna (4,82/5).

Gaitasun espezifikoei dagokienez (4,58/5eko batezbesteko balorazioa), honako gaitasun hauek nabarmentzen dira: "bere lana kalitatearen eta etengabeko hobekuntzaren ikuspegitik garatzea, jarduera profesional arduratsu baterako behar den autokritika gaitasunarekin (4,68/5) edo "norberaren eta komunitatearen osasun psikologikoa sustatzeko eta hezteko jarduerak egitea" (4,68/5). Azkenik, begiraleen % 97,36k praktikan izan dituzten ikasleak kontratatzea gomendatuko lukete.

2.3.3.2. IRien eta TEKAZELen gogobetetzea

Ikusi Graduaren Txosteneko 1.3.3.2. atala.

kt Zc q dq u ZUW
u ZōUmUp Uc q U4V
HUdj f U4V
f s Uc ~ pj f UV
f HUv ~ dH s UW
~ Öü 8Y¿?i¿» ¿8V
e »?¿8Y» V

AURKIBIDEA: PSIKOLOGIA: GIZABANAKOA, TALDEA, ERAKUNDEA ETA KULTURA UNIBERTSIATE MASTERRAREN URTEKO MEMORIA

3.1. TITULUAREN KALITATEA BERMATZEKO JARDUERAK

3.1.1. MASTERREKO IKASLEAK ORIENTATZEKO ETA HAI EI PSIKOLOGIA FAKULTATEAN SARTZEN LAGUNTZEKO JARDUERAK

3.1.1.1. Ikasle berrien harrera

3.1.1.2. Tutoretza programa

3.1.1.3. MALari buruzko informazioa

3.1.2. IRAKASGAIK KOORDINATZEKO JARDUERAK

3.1.3. TITULUA HOBETZEKO JARDUERAK ETA EKINTZAK

3.1.3.1. Ikasketa planaren aldaketak

3.1.3.2. Irakaskuntza planifikazioa

3.1.3.3. MALaren jarraipena eta hobekuntza

3.1.3.4. Mugikortasuna

3.1.3.5. Ikasleak laneratzeko jarduerak

3.1.3.6. PGTEK masterraren publizitatea egiteko jarduerak

3.1.3.7. Eskertzak, iradokizunak, kekek eta erreklamazioak

3.1.3.8. Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema

3.2. BALIABIDEAK

3.2.1. BALIABIDE MATERIALEN ETA ZERBITZUEN DESKRIBAPENA

3.2.2. ERABILGARRI DAUDEN GIZA BALIABIDEEN DESKRIBAPENA

3.2.3. MOTIBAZIOA ETA GARAPENA

3.3. EMAITZAK: MASTERRAREN JARRAIPENAREKIN LOTUTAKO ADIERAZLEEN BILAKAERAREN AZTERKETA KUANTITATIBOA ETA KUALITATIBOA

3.3.1. PLAZEN ESKAINTZA ETA ESKARIA, ETA SARRERAKO PROFILA

3.3.1.1. Ikasketen eskaria

3.3.1.2. Onartutako ikasleen kopurua eta profila

3.3.2. IRAKASKUNTZAREN EMAITZAK, EGRESATUEN PROFILA ETA LANERATZEA

3.3.2.1. Errendimendu akademikoaren tasak

3.3.2.2. Mugikortasuna

3.3.2.3. Egresatuen profila

3.3.2.4. Laneratzea

3.3.3. GOGO BETETZEA

3.3.3.1. Ikasleen gogobetetzea

3.3.3.2. IRien eta TEKAZELen gogobetetzea

3. PSIKOLOGIA: GIZABANAKOA, TALDEA, ERAKUNDEA ETA KULTURA UNIBERTSIATE MASTERRAREN URTEKO MEMORIA

3.1. TITULUAREN KALITATEA BERMATZEKO JARDUERAK

Hiru ataletan deskribatu dira egindako jarduerak: ikasleak orientatzeko jarduerak, gaiak koordinatzeko jarduerak eta irakaskuntza hobetzeko jarduerak.

3.1.1. MASTERREKO IKASLEAK ORIENTATZEKO ETA HAIEN PSIKOLOGIA FAKULTATEAN SARTZEN LAGUNTZEKO JARDUERAK

3.1.1.1. Ikasle berrien harrera

Irekiera eta ikasle berriei harrera egiteko ekitaldia masterra hasi baino 2 egun lehenago egin zen, 2023ko irailaren 28an, Fakultateko 3.1 gelan. Bertan, Batzorde Akademikoak, masterreko irakasle batzuek eta ia ikasle guztiek hartu zuten parte. Inaugurazio ekitaldi horretan ikasketen gidaliburua banatu zen, eta masterraren antolakuntzari buruzko alderdi interesgarriak azaldu ziren. Besteak beste: ongietorria eta masterraren aurkezpena, Masterreko Batzorde Akademikoa, irakasgaien eskaintza, gaitasunak, irakasleak eta ebaluazioa; eskola egutegia; baliabide materialak; master amaierako lana; tutoretza programa eta webgunearen aurkezpena, ikaslearentzat interesgarriak diren beste gai batzuen artean.

Ikasleei fitxa labur batzuk betetzeko eskatu zitzaizkien, masterrean beren interesak, beren ibilbidearen deskribapen laburra eta adierazgarritzat jotzen zuten beste edozein datu azaltzeko. Datu horiek oinarri hartuta, Batzorde Akademikoak ikasleen profilen laburpen orokor bat egin zuen, eta irakasleei bidali zien modulu bakoitza hasi aurretik, lan egingo zuten taldea testuinguruan jar zezaten.

3.1.1.2. Tutoretza programa

Tutoretza plana abiarazteko, ikasle bakoitzari tutore pertsonalizatu bat esleitzen zaio, programan zehar lagundu diezaion eta orientazio akademikoa eman diezaion. Masterreko zuzendariak eta horretarako izendatutako AZPko langileek ikasleen kontsultak artatu eta haiei erantzun diete.

Amaitzeko, ikasleek master amaierako lana zuzentzeaz arduratuko den irakaslearen aholkularitza jasotzen dute. Pertsona hori ikasleek aukeratzen dute.

3.1.1.3. MALari buruzko informazioa

Masterreko zuzendariak MALari buruzko informazioa eman die ikasleei hainbat modutan. Lehenik eta behin, irekiera jardunaldian oinarrizko alderdiak aurkeztu ziren. Ondoren, zuzendariak MALari buruzko informazio saio baterako deia egin zien ikasleei, eta MALaren erregelamenduari eta prozesuari buruzko informazioa eman zitzaion bertan. Halaber, fluxu diagrama bat eman zitzaion, gaia aukeratzeko prozesuan ikasleei sor dakizkiekeen zalantzei buruz eta horiek egiteari buruz. Lanen zuzendari izan zitezkeen irakasleen zerrenda aurkeztu zen, lanak zuzentzeko ikasleak haiekin harremanetan jartzen has zitezkeen, eta irakasle bakoitza zein gai/arlotan profesionala eta zein ikerketa arlotan espezializatuta dagoen ere zehaztu zen.

Gaia taldean jorratzeaz gain, amaitutzat ematen zen gaia aukeratzeko prozesuaren tutoretza/jarraipen indibidualizatua egin da, ikasle bakoitzak MALa egiteko gai bat eta tutorea edo tutoreak zituen unean.

[Webgunean](#) eskura daiteke informazio guztia.

3.1.2. IRAKASGAIK KOORDINATZEKO JARDUERAK

Ikasturtea hasi aurretik, Batzorde Akademikoak martxan jarri zuen irakasgaietako irakasle taldeek edukiak, jarduerak eta ebaluazioa koordinatzeko erabiltzen duten prozesua. Prozesu horretan moduluen denbora banaketaren doikuntzak egin dira, modulu jakin batzuen edukiak hedatzeko denbora sekuentzia hobetzeko.

Irakasgaiei eta irakasle taldeei buruzko informazio guztia Masterraren Ikasketen Gidaliburuan argitaratzen da, zeina ikasleei eskura banatzen zaien eta webgunean ere eskura daitekeen.

Eleaniztasuna eta masterraren nazioartekotzea sustatzeko ekintzak egin dira, English-friendly programari jarraituz gidaliburuen proposamena eta euskarazko giden programa baliokidea sustatuz. Era berean, irakasgaia ematen duen lehen irakasleak hari buruzko guztia jakinarazten du: irakasgaiaren helburuak eta gaitasunak, gai zerrenda (eduki teorikoak eta praktikoak), gaia irakasten duten irakasleak, ebaluaziorako prozedurak, etab.

3.1.3. TITULUA HOBETZEKO JARDUERAK ETA EKINTZAK

3.1.3.1. Ikasketa planaren aldaketak

2022-23 ikasturtean ez da aldatu ikasketa plana.

Ikasturte honetatik aurrerako hobekuntzei dagokienez (2022-2023), graduako eta graduondoko gure ikasleek edozein tokitatik sartu ahal izango dute EHU appStore aplikazioaren bidez irakasgaietan erabiltzen diren software espezifikoetan. Ikasturte bakoitzaren hasieran, horren berri emango zaio ikasleei.

Derrigorrezko lau irakasgaiaren ordutegia aldatu da, eta denbora bikoitzean ematen dira, baina arratsaldeetan konbinatzen dira. Ordutegi banaketaren berrikuntza hori oso positibotzat jo da.

Gidaliburuen eskaintza sustatu da gaztelaniaz, ingelesez eta euskaraz.

Ikasleei egindako inkesten bidez hautatutako gaiak dituzten tailer osagarrien eskaintza azpimarratu da. Masterreko ikasle ohiek emandako tailer horietan landutako gaien artean, doktorego tesia egiteko ordaindutako prestakuntza ibilbideak bilatzea eta ikerketak egiteko etika baimenekin lotutako izapideekin ohitzeko tailer bat daude.

Bestalde, hainbat ediziotan arrakasta handia izan ostean, azken bi ikasturteetan artikuluak ingelesez idazteari buruzko tailerraren eskaera oso txikia izan da, ziur asko egungo ikasleek gaitasun handiagoak dituelako arlo horretan, eta, beraz, tailer hori berriro ez eskaintzea erabaki da.

3.1.3.2. Irakaskuntza planifikazioa

Masterreko Batzorde Akademikoak irakaskuntza plangintza bat prestatu zuen, eta proposatu zuen irakasle eta ikertzaileen irakaslana egiaztapen memorian jasotako eta Fakultateko Batzarrak onartutako irizpideen arabera banatzea. Kanpoko irakasleekin harremanetan jarri zen, libre zeudela ziurtatzeko. Jarraian, irakaslana banatzeko

proposamena sailei aurkeztu zitzairen, berrets zezaten. Prozesu hori guztia Akademia Antolakuntzako dekanordearekin koordinatuta gauzatu zen. Hark prestatu zituen ordutegiak, eta WebUntis sisteman argitaratu ziren (webgunean eskura daitezke).

3.1.3.3. MALaren jarraipena eta hobekuntza

Tutoreek eta masterraren zuzendaritzak orientazio lanak egiten dituzte MALeekin lotuta. Tutoretza horietan, ikasleen interesak egituratzen dira, batzuek ez baitute oso argi zer egin dezaketen eta zer ez, ezta zer gai aukera dezaketen ere; era berean, aztertzen da ikasleen ustez zein den aukeratutako gaia sakontzeko irakaslerik egokiena, eta, azkenik, MALaren zuzendariak aldatzen dira, baldin eta zailtasunak sortzen badira tutorearen eta ikaslearen artean.

Tutoriza daitezkeen arloak eta gaiak zabaltzeko, tutorekidetza prozesu bat bultzatu da. Tutorekidetza hainbat arlotako irakasleen arteko sinergiak sortzea ahalbidetzen duen formula bat da, eta, gainera, masterrean irakasten ez duten irakasleek izan dezaketen ikuspegiak eta esperientziak baliatzen eta aberasten da. Tutorekidetzetan beti egon behar du, gutxienez, masterraren barruan eskolak ematen dituen irakasle batek.

Halaber, ahalegina egin da masterra garatzen den testuinguru eleaniztunari erantzuna emango dioten MAL hirueledunen epaimahaiak eskaintzeko.

3.1.3.4. Ikasleak laneratzeko jarduerak

Puntu honi buruz eskuragarri dauden datuak txosten osoaren 2.3.2.4 atalean kontsulta daitezke.

3.1.3.5. PGTEK masterraren publizitatea egiteko jarduerak

Honako hau da Masterraren webgune eguneratua:

<https://www.ehu.eus/eu/web/master/psikologia-gizabanakoa-taldea-erakundea-kultura-masterra>

Bertan ageri dira masterraren aurkezpena, helburuak eta gaitasunak, programa eta irakasle taldea, antolakuntza, sarbidea eta matrikula, baliabide materialak, ordutegia, egutegia eta harremanetarako helbideak. Era berean, ikusgai dago praktikei buruzko informazioa, aurretiko izen emateari eta matrikulari buruzkoa eta tituluaren egiaztapen, jarraipen eta akreditazioari buruzkoa, eta ikasketen gidaliburuak ere eskura daitezke. Informazioa bi hizkuntzatan dago

webgunean (gaztelaniaz zein euskaraz).

Masterra zabaldu eta balizko ikasleak erakartzeko, Masterreko Batzorde Akademikoak "Master Week" jardunaldian parte hartu zuen. Oraingoan, online egin zen. Urteroko legez, jardunaldi horretan UPV/EHUko graduondoko eskaintzari buruzko informazioa ematen da, master bakoitzari (kasu honetan, Psikologia: Gizabanakoa, Taldea, Erakundea eta Kultura masterra) buruzko zenbait "stand birtualetan" eta hitzaldi espezifikoetan.

3.1.3.6. Eskertzak, iradokizunak, kexak eta erreklamazioak
Ikus Graduaren txosteneko 1.1.3.8 puntua.

3.1.3.7. Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema
Ikus Graduaren txosteneko 1.1.3.9 puntua.

3.2. BALIABIDEAK

3.2.1. BALIABIDE MATERIALEN ETA ZERBITZUEN DESKRIBAPENA

Ikus Graduaren txosteneko 1.2.1 puntua.

3.2.2. ERABILGARRI DAUDEN GIZA BALIABIDEEN DESKRIBAPENA

2022-23 ikasturtean, 40 irakaslek osatzen zuten irakasleen plantilla. Horietatik % 90 (36) UPV/EHUko irakasle eta irakasleak ziren, eta gainerako % 10 (4) kanpoko irakasleak.

UPV/EHUko langileen artean, 36 doktoreak dira. Sexuaren arabera, 25 emakumezkoak dira, eta 11 gizonezkoak. Orokorrean, irakasle guztien artean 86 ikerketa seiurteko metatzen dituzte, eta irakaskuntzan esperientzia izateari dagokionez, 115 bosturteko guztira. Gainera, 31 irakaslek Docentiaz ebaluazio positiboa jaso dute.

Masterrean eskolak ematen dituzten kanpoko irakasleen artean, 3/4 gizonezkoak dira, eta 1/4 emakumezkoak, eta 12 seiurteko eta 17 bosturtekoko esperientzia duten doktoreak dira laurak.

Master honen indarguneetako bat irakasleen irakaskuntza eta ikerketa kalitatea da. Aurreko urteekin alderatuta, irakasleen seiurtekoen eta bosturtekoen kopurua mantendu da. Docentiaz ziurtagiria duten irakasleen kopuruak ere gora egin du eta egonkortasun handiagoa dago

plantillan (91tik 94ra). Generoari dagokionez, emakumezko irakasleen kopuruak gora egiten jarraitzen du, eta gizonezko irakasleen kopurua, berriz, mantendu egiten da.

Kanpoko irakasleei dagokienez, aurreko urteetako bikaintasun ezaugarri berak mantentzen dira.

3.2.3. MOTIBAZIOA ETA GARAPENA

Ikus Graduaren txosteneko 1.2.3 puntua.

3.3. EMAITZAK: MASTERRAREN **JARRAIPENAREKIN LOTUTAKO** **ADIERAZLEEN BILAKAERAREN** **AZTERKETA KUANTITATIBOA ETA** **KUALITATIBOA**

3.3.1. PLAZEN ESKAINTZA ETA ESKARIA, ETA SARRERAKO PROFILA

3.3.1.1. Ikasketen eskaria

2022-23 ikasturte honetarako, graduondoko onarpen prozesuen kudeaketa zentralizatu zen. Dena dela, titulazioaren okupazio indizea eta titulazioaren lehentasun indizea jaitsi egin ziren aurreko urteekin alderatuta, nahiz eta titulazioaren egokitzapena % 90era egokitzen den.

3.3.1.2. Onartutako ikasleen kopurua eta profila

Plazen eskaintza eta eskaria egonkor mantentzen da, ikasleen profil egokituarekin, aurretiko prestakuntzari eta titulazioaren eskakizunetara egokitzeari dagokienez. Hala ere, 2022-2023an 10 pertsona matrikulatu ziren, eta horietatik 4 atzerritarrak ziren.

3.3.2. IRAKASKUNTZAREN EMAITZAK, EGRESATUEN PROFILA ETA LANERATZEA

3.3.2.1. Errendimendu akademikoaren tasak

Emaitzak oso onak dira errendimendu akademikoaren tasa guztietan: errendimendu tasaren emaitza % 85,43 da, arrakastarena % 98,08 eta

ebaluazioarena % 87,10. Efizientzia tasa % 95,24ra igo da.

3.3.2.2. Egresatuen profila

Titulazioaren egokitzapena % 90ekoa bada ere, titulazioaren okupazioa nabarmen murriztu da (41,67tik 27,78ra).

Gainera, azken urteetan, Masterra gainditzeko denbora gehiago behar duten ikasleen kopuruak gora egin duela ikusi da. Horrek esan nahi du egresatuen kopurua 11tik 7ra jaitsi dela eta graduazio tasa 84,62tik 64,29ra.

3.3.2.3. Laneratzea

Adierazle horien erreferentziazko biztanleria LANBIDEk 2019an egindako inkestari erantzun dion promozioko graduatuen kopurua da. Lortutako datuek adierazten dute egresatuen gogobetetzea 10etik 7,67koa dela, aurreko urteekin alderatuta, hobetuz.

3.3.3. GOGOBBETETZEA

3.3.3.1. Ikasleen gogobetetzea

Ikasleek gogobetetzeari buruzko hiru inkesta bete dituzte. Lehenak masterreko irakasgai bakoitzeko eduki, erabilgarritasun eta koordinazioarekiko gogobetetzea aztertzen du, baita kanpoko praktikei eta MALari begirako gogobetetzea ere (inkesta hori bi urtean behin aplikatzen da). Bigarrenak ikasleek irakasleek irakatsitakoari begira duten gogobetetzea aztertzen du, eta hirugarrenak, berriz, praktikekiko gogobetetze maila neurtzen du (nahiz eta hori aukera gehigarri bat izan, eta ikasleek oso gutxi aukeratu dute, lan gaitasuna dakarrelako).

-Masterreko irakasgaien edukiari, erabilgarritasunari eta koordinazioari buruzko balorazioa, baita kanpoko praktikei eta MALari buruzkoa ere.

Oro har, ikasleek modu positiboan baloratzen dituzte landutako edukiak eta horien erabilgarritasuna. Modulu bakoitzean hainbat irakaslerekin elkarrekin aritzean jorrotutako ikerketa ildoan aniztasuna balioesten bada ere, zenbait kasutan hobetzeko tarte bat hautatu da horien koordinazioari dagokionez.

-Ikasleek irakasleek irakatsitakoari begira duten gogobetetze mailari dagokionez, datuek 5etik 4,6ko balorazioa ematen dute.

-Borondatezko praktiken balorazioa: borondatezko praktikak egiten dituzten ikasleen proportzioa urria bada ere, masterreko irakasleen ikertalde finkaturen batekin lankidetzan arituz, horien balorazioa bikaina

da.

3.3.3.2. IRien eta TEKAZELen gogobetetzea

Ikus Graduaren txosteneko 1.3.3.2. atala.

Erakundeen Psikologia eta Esku Hartze Psikosoziala Unibertsitate Masterra

AURKIBIDEA: Erakundeen Psikologia eta Esku Hartze Psikosoziala Unibertsitate Masterra tituluaren urteko txostena

4.1. TITULUAREN KALITATEA BERMATZEKO JARDUERAK

4.1.1. MASTERREKO IKASLEAK ORIENTATZEKO ETA HAIEI PSIKOLOGIA FAKULTATEAN SARTZEN LAGUNTZEKO JARDUERAK

4.1.1.1. Ikasle berrien harrera

4.1.1.2. Tutoretza programa

4.1.1.3. Kanpoko praktikei buruzko informazioa

4.1.1.4. MALari buruzko informazioa

4.1.2. IRAKASGAIK KOORDINATZEKO JARDUERAK

4.1.3. TITULUA HOBETZEKO JARDUERAK ETA EKINTZAK

4.1.3.1. Ikasketa planaren aldaketak

4.1.3.2. Irakaskuntza planifikazioa

4.1.3.3. Kanpoko praktiken jarraipena eta hobekuntza

4.1.3.4. MALaren jarraipena eta hobekuntza

4.1.3.5. Mugikortasuna

4.1.3.6. Ikasleak laneratzeko jarduerak

4.1.3.7. EPEHP masterraren publizitatea egiteko jarduerak

4.1.3.8. Eskertzak, iradokizunak, keak eta erreklamazioak

4.1.3.9. Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema

4.2. BALIABIDEAK

4.2.1. BALIABIDE MATERIALEN ETA ZERBITZUEN DESKRIBAPENA

